

# Karkara

*karkara.eus*

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016ko irailaren 30a · 376. zenbakia. 26. urtea



## Berriketa atsegina, gogoeta interesgarriak

Arraunaz, Orioz eta telebistaz hitz egin dugu Gaztañazpirekin. Serio erantzun ditu gure galderak, serio baino errespetuz.

**16**

**Argazkiak**

Kontxa eta Gazte Festak

**20**

**Erreportajeak**

Orioko galziarrak

**28**

**Udalaren Txokoa**

Etxegabetzeak

**34**

**Kritika**

Harri eta Zur





Astelehenetik larunbatara 08.30-13.30    Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

**Kostera**  
Arraiak  
zure arrandegia

**EUSKO GUDARI, 4    943 133 580**

**ZERBITZUAK**  
logopedia  
psikologia  
pedagogia  
hezkuntza laguntza coaching  
jokabideen aldetara  
ikasketa-trebetasunak

**HITZALDIAK**  
era askotako solasaldiak - gosariak Erakekin...

**IZENA EMAN URRITIK AURRERA ANIMA ZAITEZI**

**TAILERRAK eta IKASTAROAK**  
haurrak    bideo foruma - yoga - antzerkia - sormenaren txokoa - komikigintza  
helduak jarraiak    bideo foruma - momentuko gaien solasaldiak - literatura-hizketaldiak  
helduak aldizkakoak    amatekin lanean - hemen eta orain - inguruan mugak jartzen - Bachen loreen dantzak...

943 543 231  
688 870 435  
erak.orio@gmail.com

*Itzazko 9 beheak / Abeslari, 1 - Orto*



**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

**TOP 21**  
AURREZTU %21a  
**BEZ**  
BEZ BALIOAREN DESKONTUA

ORDAINDU  
**21 HILABETETAN**  
INTERESIK GABE

**TIEN 21**

hp 255  
**289€**

Eusko Gudari, 44 - Telf. 943 83 38 41 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO    943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
[ sarrera Arrantzale kaleatik ]    libegarmendia@gmail.com

*Lizaso*  
dekorazioa

**Tf:**  
**943 83 07 84**

**Faxa:**  
**943 24 87 15**

**Eusko Gudari, 48**

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio  
Tf: 943 13 15 17

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agentea

**ASEGURUAK**  
C C L  
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**OREKA**  
FISIOTERAPIA

Tendinitisak  
Lumbalgiak    Masaje terapeutikoa,  
Artrosia    bentosak, akupuntura,  
Zefaleak ...    eskuzko terapia,  
osteopatia

**943 13 35 37**  
Aritzaga kalea, 11 beheak

**ttipi**  
ttapa

943259695  
ttipittapa.oihane@gmail.com  
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

376

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

## Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

## Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

## Erredaktore burua

Miriam Garcia

## Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Elizabete Manterola,  
Intza Unanue  
eta Rikardo Uzkudun

## Publizitatea

Sonia Albizu

## Ale honetako

### kolaboratzaileak

Aitziber Lizarralde,  
Ander Atorrasagasti,  
Andoni Campos,  
Mikel Markez  
Antxon Mendizabal,  
Garbiñe Manterola,  
Graxina Lertxundi,  
Iñaki Iturain,  
Manu Etxeberria

## Diseinua

Saioa Perona

## Banatzaileak

Ibon Berasaluze (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

## Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3400 ale

KARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzun-  
kizunik. KARKARAN argitaratuta-  
koa berremen daiteke, osorik  
edo zatika, baldin eta iturria  
aipatzen bada.

TOKIKOM

2015 **Bikam**  
EUSKALDUNEN  
KULTURAREN  
SAILAREN ZUZENDAGIA

## LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Illaro Algortako San Inaziotako jaialdian. BERTSOA

# HASI BERTSOTAN

## ARRATE ILLARO

# Euskara algortan

Algortako San Inaziotako jaialdian

**1**

Berto eskolan ibili ginen  
gu ginenean nerabe,  
erratz bat hartu eta bertsotan  
ari ginen parez pare.  
Hortik kanpora erdera asko  
entzuten zen hala ere,  
baina gu lagun bihurtu ginen  
astiro eta xuabe,  
eta euskaraz bizitzen ginen  
ia konturatu gabe.

**2**

Joan (e)ta euskaraz bizitze hutsa  
gure interesa ez zen  
baina ederto egoten ginen  
gozatzen eta pentsatzen.  
Guraso askok, esango nuke,  
sarri ez dutela ulertzen  
euren umeak euskalduntzeko  
noiz ari diren saiatzen,  
Ikastolara joanda soilik  
ez direla euskalduntzen.

**3**

Ez dut esanahi bertsolaritza  
bide bakarrena dela.  
Hori pentsatzen ariko banintz,  
izango baita ustela.  
Baina bideak egon behar dira,  
bilatu behar horrela,  
gure gazteek berdin jarraitu  
behar baitute bestela,  
gozamenaren bidez bakarrik  
motibatuko direla.a.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua





obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi  
herriko-barra 6, behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
xs@xsarkitektura.com



Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orio (Gipuzkoa)

T/ 943 835 980 W/ www.2gurpil.com E/ bigurpil@hotmail.com



**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaiak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



*edartegia*  
**ANTILLA**  
*juletegia*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889 f argine/jantziak




Tf: 943 130 438




**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



**ARISTERRAZU**  
jatetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21



EKILORE  
GARBIKETAK

626417841  
ekilore@outlook.es



urbide  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4  
20800|Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
www.urbide.es

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**



**ELEKTRIZITATEA**  
*Ander Exposito*

943 831 774  
600 856 728  
anderexpoelektrizitatea@gmail.com



## Euskal dantzen ikastaroa

Fandango, Arin-arin, Mutxikoak, Larraint dantza, eta abar ikasteko aukera eskaini nahi diegu 18 urtetik gorako herriar guztiari. Irailaren 28an hasita, asteazkenero, gaueko 9:00etan Kosta Tailerrean izango gara. ■ **Talai-Mendi helduen dantza eskola**

## Orion antolatu diren ikastaro eta tailer desberdinak

Irailaren 23tik 29ra ikastaro eta tailer desberdinak antolatu dira: gorputz mugimendua, norberarekiko jarrera ulerker eta maitagarria –autoenpatia–, kontaktua eta mugimendua familiar –guraso eta haurrak elkarrekin–, eta haurren autoestimua nola indartu. Horiez gain, ikasturte osoko guraso eskola ere martxan jarriko da. Jarduerahoriek, Orioko haurreskolan emango dira eta Madrilgo Daniel Charquero eta Nerea Mendizabalek bideratuko dituzte. Informazio gehiago: info@hartueman.com helbidean edo 655704178 telefonoan.

■ **Orioko haurreskola**

## 2016ko udako balorazioa

Eguraldi oso ona egin du aurtengoan gurean. Datu ofizialak diotenez, Inoiz baino bisitari gehiago egon da Gipuzkoako lurralde osoan.

Zumaia eta Deba arteko geoparkeak 11.000 pertsonen bisita jaso du. Urtea bukatzeko egunak falta dira oraindik eta dagoeneko iazko urte osoan baino 1.000 pertsona gehiagoren bisita jaso du.

Donostiako turismoa ondoko herrietara zabaltzen ari omen da: Albaola itsas museoak inoiz baino bisitari gehiago izan du.

Datu nabarmena da kostaldeko inguruko herri guztietan udako balorazioa positiboa izan dela.

Oriotarrak, berriz, *oasi* batean bizi garela dirudi; gure inguruan turismoak jaso duen gorakada hori, ez baita hemen sumatu. Oriora jendea erakartzen dituen gauza bakarrak, gure natur baliabideak dira: eguzkia eta itsasoa.

Udal gobernua turismoarekiko duen estrategia faltak, kultura eta aisialdiko eskaintza zaharkituak eta herriko kaleak eta txurrukako hondartzako inguruak garbitasunarekin eta zaborrekin dituzten arazoak, ez du kanpotarrentzat Orio erakargarria egiten.

Errefusa biltzeko erabiltzen diren kontenedore soterratuak, organikoak biltzekoengatik ordezkatzak; herriko errefusa jasotzen duten kontenedore kopurua erabat gutxitu du.

Erabaki hori hartzeko garaian ez da kontutan hartu Orion sortzen den zaborraren %57 errefusa modura jasotzen dela, eta ondorioz; zabor poltsak zabor ontzien inguruan pilatuta ikusi ditzakegu.

Herri honetako biztanle batzuk etxeko altzariak jasotzeko egunak ez errespetatzeko duten ohitura txarrari gehituta, irudi tamalgarria ematen dugu gurera bisitan etortzen direnengan.

Erakundeek, egunen joan etorrian, Txurrukako hondartzan inguruan pilatzen joaten diren zaborrak kudeatzeko erakusten duten erantzukizun ezak, errioren bestaldeko zelaia eta berde-

guneak zaborrez beteta ikustera behartzen gaitu. Ez da nahikoa erabiltzaileek zaborra zabor ontzietan jaso-tzearekin.

Bisigu festaz gain, ez da ekitaldi garrantzitsurik egin herriari bizitasun piskat emateko. San Pedro jaia, lan egunetan tokatu denez, soinu asko egin gabe pasa da.

Azken urteetan herrian kontsolidatzen ari zen Gure Bazterrak musika festibalak ere, bere ibilbidea Oriotik kanpora egiteko erabakia hartu du.

Kaleko giro kaxkarrak, ez ditu hondartzako kotxe ilarak eta jende andana islatzen, eta udal taldearen norabide ezak ez du jakin, aurtengoan behintzat, turisten olatu aparra hartzen.

Turismoa bideratzeko estrategian hutsune handiak sumatu daitezke eta ez mankomunitateak, ez Gipuzkoako Aldundiak ezta Eusko Jaurlaritzak ere, ez ditu etxeko lanak gure orde egingo.

■ **Orioko EH Bildu**

## Mila esker Orio

Orioko Eusko Alderdi Jeltzaleko kideen izenean, gure alderdiarengan eta gure hautagaia zen Iñigo Urkullurengan jarritako konfiantza eskertu nahi dugu. Hauteskunde hauetan ere, alderdirik bozkatuena izan da EAJ eta horrek ematen digu gure herriaren alde lanean jarraitzeko indarra eta kemena. Emandako hitza betetzeko konpromisoa hartzen dugu. Orio hobe baten alde, etorkizunari begiratzen dion Euskadi baten alde, gure herria eraikitzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Eskerrik asko!

■ **Orioko EAJ**

## HILDAKOAK

- Mikaela Iruretagoiena Urbietta, Aian, irailaren 22an. 90 urte.
- Manuel Lertxundi Uria, Aian, irailaren 8an. 82 urte.
- Eusebio Eskudero Balerdi, Orion, abuztuaren 31n. 61 urte.

## JAIOTAKOAK

- Ariane Sarriegi Cortes, Orion, irailaren 25ean.
- Xaloe Maiz San Sebastian, Orion, irailaren 23an.
- Ani Manterola Otamendi, Orion, irailaren 9an.

## EZKONTZAK

- Juan Manuel Mariño Diaz eta Maria Cristina Perez Durantez, Orion, irailaren 10ean.
- Karla Del Socorro Amador Ruiz eta Jose Daniel Cerdan Murillo, Orion, irailaren 9an.
- Ignacio Pikabea Aristegi eta Maria Jesus Romero Ruiz, Orion, irailaren 3an.
- Ainize Sayago Etxart eta Tomas Camarzana Barrio, Orion, irailaren 1ean.



Orioko gizonetzkoen trainerua arranpan, bigarren igandean. JOXEJU



Kixkurne plazako teilatura igotzeko prest. KARKARA



Piraten danborradan jende ugari hartu zuen parte. ASIER SANCHEZ

# Udako azken hondarrak

**D**onostiako badian, irailaren 4an, itsasoko epaileak bandera gorria jaitsi zuenean ziabogaraino zeuden ia 1.400 metro luzeak motz egin zitzaizkion Oriori. Balizan buelta hartu eta San Juan estu hartuta zeudela ikusita, bigarren luzerik azkarrena egin zuten oriotarrek. Helmugaratzean, lehen hiru sailkatuen arteko hiru segundoko tartea besterik ez izateak sortutako pozak luze iraun die. Udako egun luzeak amaitzen ari diren honetan, luzea egin zaie igandetik iganderako esperoa nola neskei, hala mutilei.

Nahi ez bezala atera zitzaizkien gauzak mutilei, joaneko luzean ondo aritu arren, itzulerakoan Kaikuk olatua hartu eta trabak eragin baitzizkien. Luzea egin zitzaien oso itzulera ko bidea, eta baita, gertatutakoaren amorraren eraginez, bigarren iganderainoko itxaronaldia.

Aste gazi-gozoa izan zen iraileko bigarrena; gazia mutilentzat, gozoa neskentzat. Eta, gazi-gozoa, zaleentzat; emaitzen dantzak ez ezik, 1939ko banderari ofizialtasuna kentzeak haserretu egin baitzituen asko eta asko. Zorionez Kontxako jai giroak gaziak eta gozoak festa giroz blaitu ahal izan zituen.

Festa giroa Kontxa bukatu ahala hasten dena ez ezik, irailaren 23an Kixkurneren igoerarekin hasten dena ere bada. Gazte Festetan gazteak ez ezik, oriotar guztiek egin ahal izan zuten festa. Aurten, gainera, iaz egin ez zen baina urteetan sendotasuna lortu zuen Piraten danborrada ere egin da.

Baina udarako hondarretan, arraunak hartu ditu hondartza ordu asko eta asko, irailarekin iristen baita Kontxako arraun festa, baina baita lanera buelta ere. Arraunlariek oporrak hartzean, herritarrek han eta hemen hartutako kolorea galtzen duten bitartean, arraunlari askok eta askok platanok utzitako marka guztiak belztera joaten dira eguzki eta atsedean bila.

Arraunlariok, ondo hasi oporraldia; ikasleok, ondo hasi ikasturte berria; langileok, ondo hasi uda osteko lanaldia; eta parrandazaleok, ez kezkatu, konturatzerako hemen dira eta herriko festak!



# Nola joan dira Gazte Festak?



“Bejondeizuela! Jarraitu horrela herrigintzan!”

**J**olasetan parte hartzen saiatzen naiz urtero, umeekin. Bai umeak eta baita neronek ere oso ondo pasatzen dugu elkarrekin jolasten. Aurtengo jolasa berezia izan da, *Altxorren bila*. Pistak aurkitu, frogak gainditu eta berriz ere pisten bila aritu gara. Asmakizunetan arin xamar ibili ginen! Azken frogan plaza inguratu behar genuen eskutik emanda balearen bertsoak abesten genituela. Han geundenokin nahikoa ez eta jende bila hasi ginen. Santiago Bidea egiten ari ziren japoniar batzuk ere sartu ziren katean! Gero, aulki jolas kooperatiboan ibili ginen; eta, bukatzeko, hamaiketako ederra prestatu ziguten. Bejondeizuela! Jarraitu horrela herrigintzan!


Ruth Etxeberria



“Ea antolakuntzan parte hartzetik hasten garen”

**G**eroarte Kixkurne! Aurtengoak ere joan dira, baina eman dute bere zeresana. Nahiz eta balorazio orokorrik ez dugun egin, niri iritzi pertsonala emango dizuet. Ekintzarik arrakastatsuenak piraten danborrada eta paella lehiaketa izan dira; hain zuzen ere, parte hartze handiena izan duten bi ekintzak. Urtero izaten ditugu gure zailtasunak festak aurrera ateratzeko, nahiz eta gero gazteen erantzuna ona izaten den. Ea datozen urteetan antolakuntzan parte hartzetik hasten garen, norberak bere hazia jarritz, gazte festak herritik eta herriarentzat izan daitezen.

Olatz Mujika



“Laguntzeaz gain, festak gozatzeko aukera izan dut”

**O**stiral arratsaldean hasitako festak, igandean bukatu zirenen zurrumurrua entzun dut, baina gertukook oraindik festak dauzkagu mintzagai. Aurtengoan kua-drillakoak izan gara bazkaria antolatu dugunak, eta egia esan lan handia du horrek! Erosketak egin, bazkarirako mahaia eta aulkiak jarri eta kendu, kafea banatu... Beste urteetan ez dugu parte handirik hartu, kanpotik ikusten denean erraza dirudi! Baina laguntzeaz gain, festaz gozatzeko aukera izan dut. Guztien laguntzarekin festa itzelak lor ditzakegu, eta aurten nabaritu da! Eskerrak eman antolakuntzan egon direnei eta Zorionak! Gora *Oriyoko* Gazte Festak! Gora piratak!

Mikel Elustondo

**JON ANDER MAIZA AROZTEGIA**



**LEIHO ISOLATZAILEAK  
PVC - ALUMINIOA**

**690 99 39 32 / 943 30 07 88**

ventasmaiza@gmail.com

www.carpinteriamaiza.com

Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO



**Seguros  
Bilbao**

Telf: 943 111 600  
688 714 869

Endaia Enparantza, 1  
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



**IGLESIAS  
SARRAILAGILEAK**

**24** ORDUNO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
**637 723 308**  
iglesiascerraferos@yahoo.es  
**20810 ORIO**

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

**PERTSIANAK**

**A K O M A Z**

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

**Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27**

**arkaitz taberna**  
orio

- Oqitarakoak Pini xook
- Flaur kombinatua
- Karta

Terniza ederrik  
Giro ezin hobea

**abestari kalea 6 - 943 831 657**

HEZKETEKIA  
**PATXI OLIDEN**  
HEZKETEKIA

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketak...

**PATXI OLIDEN**

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**Portu**

Santio Erreka Auzoa, zig  
943 89 44 34  
20809 AIA-ORIO

**ERRETEGIA**

kazolifikatutako kaserriko oilaskan  
parrikako erreteak eguneko menu...

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**ORIA**  
hartz klinika

Oria Hartz Klinikak **ORTODONTZIA**  
zerbitzu berria jarri du martxoan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela  
jakinda, hartu aume etorkizunean sor  
dollezkeen arazoak.

Arrantzale kalea, 63 beheak  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

**sinergia** FISIOTERAPIA  
IKERKETA

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK,  
KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA,  
ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK,  
ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN,  
LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU  
BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG,  
MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA,  
KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA  
HIPOPRESIBOA (GAH)

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**ZINKU**

Igeltseritza orokorra  
Etxeko erreforma mota guztiak  
tabikeak, bainu gelak, igeltsua...

Ander Zinkunegui  
**667 740 279**

**Zaragueta**  
Herri Eskola orio

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ASADOR  
XIXARIO**

Eusko Gudariaren Kalea, 2  
Tel. 943 830 019 - ORIO

**URAITZ**  
burdindegia  
jantzi-sagarriak

Endaia,3 Tfnoa: 943 83 18 97



# Emakumeek: helburua lortuta



Manu Etxeberria

**L**oan den urtean ospatu genuen Orioko Arraunketa Elkartearen 50. urteurrena –sorreran, *Club de Remo Olímpico de Orio*–. Patxi Sarasua, Antonio Campos eta abarrek elkarte berrirako jarritako helburuen artean ez zen azaltzen, zehazki behintzat, emakumeek lekua izango zutenik klub berrian. Hala ere, urte gutxira, 1970ko hamarkadan aritu ginenok, gogoan dugu herriko neska batzuk hurbiltzen hasi zirela barraka zaharraren ondoko ontziraleku mitiko hartara, Juan Luis Amilibiak egindako poliesterreko ontzi laranja haietan aurreneko arraunkadak ematera.

Urte asko igarota, eta denbora horretan klubetik neska asko pasa ondoren, esango nuke aurtengoan neskek, nolabait ere, elkarteak zuen zorra kitatu dutela. Kontxako 1970ko edizioan mutilek egin zuten moduan, 2016ko honetan neskak erakustaldia eman dute Donostian, eta Arraunketa Elkartek zuen hutsune hori betetzea lortu dute. Alegia, euskal arraunaren estropada garrantzitsuenean punta-puntan, onenen aurka, lehiatzea. Orioren izena goi-goian jarri zuten gure neskek.

Kontxan maila gorena erakutsi duten San Juan eta Errenteriako Hibaika bezalako traineruen parean lehiatzea ez da lan erraza izan inola ere, baina gure neskek lortu dute; modu bikainean lortu ere. Aurreko urteetan zumaiarrek, getariarrek, tolosarrek, zarauztarrek eta galiziarrek bete duten lekua aurtan Oriorentzat izan da. Baina ez da izan, ez, ohoreko txandan partaide hutsa. Sailkapen estropadan eta, batez ere aurreneko igandean, gure neskek goi mailako gorputzaldia eta arraunketa erakutsi zuten Donostiako badian, milaka eta milaka ikusleen aurrean.

Nesken prestakuntza eta arraunketa dotorea dagoeneko onartuta duen Kontxako banderan, oriotar neska arraunlariek, mutilen ahulaldia goxatzeko, herriaren ilusio eta grina piztea lortu dute. Urte askoan hala jarraitzea espero dugu zaleok. Mila eta mila esker, neskak.



Olatz Artola Apeztegia

## Ni ez naiz inor zuen etxean sartzeko, baina...

**L**arrauna askorentzat erlijioa den herri honetan, kristaudentzat Nazaretoko Jesusen jaiotza ospatzeko meza santua baino sakratuagoa da Kontxa.

Ezin esan tribu horiak barru-barruan daraman bihotz horia daukadanik, eta ezin senti oriotarrek odolean daramazuen arraun sen hori. Baina, ezin dut uka arraunzaletu ez naizenik.

Zalea naiz, bai. Oilo ipurdia jarri zitzaidan neskek kasik bateleren trainerua zapaldu zutenean, ileak puntan hunkituta elkar besarkatzen dutenean, begiak malkotan mutilak lur jota ikustean. Bai, zalea naiz; zalea-edo, sentibera.

Eta, nire sentiberatasunean, sarritan, amorratuta sentitze naiz platanito horia ez dena janzten duten horiek senti dezaketen onarpen faltagatik, emakume izateagatik itzalean egotera kondenatuta dauden horientzat.

Askotan, gehietan, antzekotasun nabarmenak ikusten ditut Hondarribiko alardearen eta Orioko arraunaren artean. Biak horren herrikoiak, biak horren historikoak, biak horren tradizionalak. Baina biak herrenak.

Betiko lehen trainerua belar onean hazten itsutu eta gainontzekoak larre motzean –*okerrago dagoenik badela kontziente izanik; ia gehienak, gainera*– zaildu beharrean, hobe errespetuan eta berdintasunean oinarritutako zimendu sendoa osatzen tematzea, arraunzaletasunak Orion herren egin ez dezan.

# “Errespetua da hiztegi-ko hitzik politena eta garrantzitsuenena”

## Ibon Gaztañazpi

Kazetaria eta arraunlari ohia

Zeibre ibili gara elkarrizketa egiteko tarterik topatu ezinda. Bere etxean hasitakoa moilako eskaileretan eserita amaitu dugu Karkara entregatu bezperan. Herriak arraun kontuak espero ditu baina Gaztañazpiren bizimoduak eta izaerak asko du kontatzeko erredakziotik eta tostarretik kanpo. Hizlari apartak orriotan kabitu ez diren kontu asko utzi dizkigu.

**TESTUA: JON AGIRRESAROBÉ**

**ARGAZKIAK: KARKARA ETA EITB**

### Zer moduz bizi da Gaztañazpi?

Ondo, uda ondo aprobetxatu izanaren sentazioa dut. Neguko martxa hartuta, Auzolan saioan eta herri kiroletan ikusiko nauzue. Confuciok esaten omen zuen *gustuko lana aurkitu eta lan egiteari utziko diozu*. Horixe gertatu zait, gustura ari naiz. Aukeran presaka samar bizi gara, horixe txarrena.

### Oholtza gainean ikusi zaitugu gazte festetan.

Zaletasun ugari izan ditut, zaletasunak eta kezkek. Musika aspaldi deskubritu nuen. Bere garaian Jose Ignazio Unanue-rekin bost kanta ikasi nituen eskusoinuarekin. Orioko bandedan jo nuen klarinetea Peronatarren esanetara. 2000. urtean gitarra ikastera joan ginen Gorka Etxeberria eta biak. Santurtzin entrenatzaile nintzela, bigarren urtean, saxofoi txiki bat erosi nuen, txinoa, eta ordutik dezente jo izan dut. Orain alaba trikitia jotzen hasi da eta gustuko dut gitarrarekin laguntzea. Azken urte erdian herriko gazte talde batekin jotzen dut Trapaila taldean.

**Musika instrumentuak adina ofizio izan dituzu.**

Piragua monitore aritu nintzen Txurrukan, hura izan zen nire lehen lana. Ez dakit pasatako lan guztiak oroituko ditudan: Victoria Eugenia pajarita jantzita zerbitzari, gerora Xanti tabernan ere bai, Botalekun zerran eta kamionetarekin aritua naiz, lehengusuekin ere bai. Ingeles kaxkar askoarekin amonei kafesneak zerbitzatu dizkiet Ingalaterran, marrubia biltzen aritua naiz Danimarkan, Areetako abokatu bulego batean traje eta guzti lan egin dut Plentziatik metroan joanda, AEKn euskara irakasle aritu naiz Bilbon, Barakaldon, Zarautzen eta Orion. Kale-inkestak egiten, euskara teknikari Tolosa eta Irungo epaitegietan, itzulpenak egin ditut... Bakarren bat ahaztuko zitzaidan.

### Hainbeste aldaketak badu arrazoi konkreturik?

Eskola ona izan dira. Sinesten dut lan egiteak balioa duela. Ez zait inoiz patrikan mila pezetakorik falta izan, baina lan egin da. Garbi ikusi dut ez nuela abokatu izan nahi, baina bost urte karrera egin eta gero. Obra ezagututa ikusten duzu ahal dela beste zerbait egin nahi duzula.





**Bidean zein esperientziak markatu zaitu gehien?**

Arraunak. 11 urterekin hasi nintzen eta gizonak bezala tratatzen gintuzten, onerako eta txarrerako. Giro gordin hura izan zen gure eskola. Askok markatu ninduten arraunlari eskarmentudunek aldagelan egoteko eta hitz egiteko zuten moduak. Bigarren arrastoa Donostiako La Salle ikastetxera batxilergoa egitera joan nintzenekoa da. Oriotik atera eta Oiartzun, Hernani eta inguruko herrietako gelakideak izan nituen, Orion bizi ez nuen Euskal Herria ezagutu nuen, beste giro bat. Esaterako, garai hartan hasi nintzen Egin irakurtzen. Bi erreferentziak kontrajarriak dira, nolabait esatearren: ordu artekoa puskatu eta mundua jan nahia, baina arrauna zen gure aingura.

**Behin, estutasun une batean, zugandik opari jaso nuen Eh Petrel liburua.**

Julio Villarrek idatzia. Gerora jakin dut Orion familia duela, Dike Zaharrenekoak. Orain Eh Petrel euskaratzen ari naiz, noizbait amaitu behar dut. Orriotan unibertso oso bat dago, *dena utzi eta segi* dioena. Askatasun garrasi erraldoia da. Gaur arte ez dut egin, bizitza aurrera doa eta ez dakit egingo dudan, baina txikota denak askatu eta alde egin duen jendeak miresmena sortzen dit.

Gehitu nahi nuke, mundua ikusteko eta Orion aske sentitze-ko duen moduagatik arrasto handia utzi didala Benito Lertxundik. Lehenbizi bere musika miresten nuen. Gerora, trainerutik konturatu ginen begira egoten zela eguna joan eta eguna etorri. Ordu asko egin ditugu elkarrekin.

**Errespetu handia diozu zure gurasoen belaunaldiari.**

Hala da. Gurea izango da Euskal Herrian lehenengo belau-aldia bere aurrekoekin hautsi duena. Ez diegu entzuten, ez dakigu beraien berri. Ez diegu galdetu taloa edo aparejua nola egiten diren. Esaterako, herriko arrantzaleek gorriak ikusi zituzten Azores irlara joan eta denboraleak harrapatu zituenean. Hogei urte pasa dira eta hori bizi izan zutenei ez diegu kontatzeko eskatu. Nik gustuko dut arrantza, etxe-koandre eta abarrekin berriketan lasai egotea. Adineko jendeak zer esan handia du eta esan indar handia du bere euskarak. Bestalde: adinekoak aintzat hartu, errespetatu eta balioan jartzen ez dituen gizarteak zer balio du? Besteak beste, helburu hori genuen Herri People saioan, Euskal Herria bere osotasunean erakustea, hiztun onak atarez.

**Bizitzan inflexio puntua komunikazioa ikasten hasi zineneko omen duzu. 28 urterekin sartu zinen komunikazio karrera egitera, neroni testigu.**

Hasi eta berehala sentitu nuen hura zela nahi nuena. Neke-rik gabe egiten nuen eskatutako guztia. Motibazioz gainezka tximista bezala atera nintzen lan mundura, indartsu. Berria egunkaria izan da nire eskola. Telebistan adorez sartu nintzen, kamera nola pizten zen jakin gabe, baina gauzak egiteko gogoarekin. Uste dut arraunak asko lagundu didala; aurkezpen txartel paregabea da Orioko arraunlari izatea. Albigetietan hasi eta Kresala izan zen aurreneko programa. Hori bai, inork ez dizu ezer oparitzen. Lanik gabe gelditzean neronek proposatu izan ditut edukiak: Senegalen izana naiz, Alakranara ontzian ere bai herriko adiskide marinela audio teknikari gisa ondoan dudala.



“Sinisten dut lan egiteak balioa duela. Ez zait inoiz patrikan mila pezetakorik falta izan, baina lan egin da”.

“Adinekoak aintzat hartu, errespetatu eta balioan jartzen ez duen gizarteak zer balio du?”

“Programa batek eskatzen zaion zenbakia ematen ez badu kendu egingo dute. Irizpide ia bakarra audientzia da. Oso mundu gordina da”.





### **Telebistan audientziek agintzen omen dute. Presio handia sentitzen al duzue?**

Tamalez, programa batek eskatzen zaion zenbakia ematen ez badu kendu egingo dute. Irizpide ia bakarria audientzia da. Oso mundu gordina da, ezegonkorra. Telebistako jendea audientziekin obsesionatuta bizi da. Nire ustez, kalitate galera dakar horrek, edozer da balekoa, Espainiako telebista kate pribatuetako ereduak hartzen dira. Ez da ahaztu behar EITB zerbitzu publikoa dela, audientziak kontuan izan bai, baina distantzia minimo bat ere hartu beharko genuke.

### **Audientziak aipatuta, Kontxako estropadek aparatua leheritu omen dute. Zein da sekretua estropadak Abaltzisketan ere intereseko bihurtzeko?**

*Shareak* neurtzen du, ehunekotan, momentu horretan telebista ikusten ari direnen artean zenbat diren kate bat edo bestea jarraitzen ari direnak. Eguerdi partean kopuru totalak txikiagoak dira, baina ehunekoak izugarriak dira bai. Konparaketa egingo dugu. Futboleko Munduko Txapelketako finalak %40 lortzen du, Champions finalak %35. Kontxako estropadak %30aren bueltan dabilta, beste kirol guztien gainetik. Arrauna pasioa da, gure izaeraren zati bat dago traineruetan, herrien arteko lehia, lehiak sortzen duen saltsa. Estetikoki oso ikuskizun harmonikoa da arrauna. Gainera, itsasoa eta natura erakusten ditugu.

Ez dago ondo nik esatea baina uste dut produktua asko hobetu dela. Euskal Telebistak apustua egin du arraunaren alde, Mikel Olazabalek lan handia egin du urte luzez eta aleka-aleka sartu dira hobekuntzak. Traineruaren arima harra-

patzen dugu, barruko irudiak eta patrioiaren ahotsa. Imajinatu futboleko jokalarien elkarrizketak entzungo bagenitu. **Olazabalek eta biok ahalegin handia egiten duzue gertatzen ari dena ulertarazteko.**

Etxetik estropada ulertzeko pistak ematen saiatzen naiz: haizearen eta korrontearen norabidea eta indarra, olatuen maiztasuna, kaleen historikoa, estropada eremuan sortzen diren babesak... Teknikoki ere berdin. Patrioiari "buka" entzuten badiogu azaldu behar da presa txarra dela arraunean, etxeko umeei azalpenak ematen zaizkien moduan azaltzen saiatzen naiz gainera. Hori bai, umetan barnerratu genuen terminologia erabili nahi izaten dut. Arraunean ibiltzea izugarrizko euskaltegia izan zen guretzat. Katxoa, beaxoia, itsaso berdia, trapaila, barbarra, errexola... zergatik ez ditugu erabiliko?

### **Eroso al zabilta? Lagunartean kontatu izan duzu Bermeon, Hondarribian, Sestaon, San Juanen eta hemen, Orion, kontu eske etorri izan zaizula jendea.**

Eroso sentitzen naiz edukia beste edozein gai baino gehiago kontrolatzen dudalako. Baina iritzia ematea ere tokatzen zait eta hor hasten dira gorabeherak. Ez bustitzekotan hobe da etxean gelditzea, iritzia emateko konpromisoa hartu dudalako. Onerako edo txarrerako ni jarri naute. Asmatzen denean saiatzen naiz ondo egin dela esaten, puztu gabe. Zerbait gaizki dagoela ikusten badut aipamena egingo dut, baina ez zait gustatzen behin eta berriz esatea, gauzak gaizki doazenean arraunak berekin baitu zalaparta eta xextra. Barruan egonak gara eta badakigu zer den hori. Abantaila bat



dut, zorionez: arraunarekin nituen zorne guztiak bere garaian atera nituen, ez nago inorekin haserre edo inori txarra desiratzeko. Herrietan kontu eske datozenei ere hori erantzuten diet, ez daukadala inoren kontra ezer. Egia esango dizuet, Orioren kasuan distantzia emozionala Filipinetara eramana daukat, gehiegi agian, baina lanean on egiten dit.

Askotan galdetu gabe jakiten ditugu gauzak, arraunlari, zuzendaritza kide eta entrenatzaileekin harremana dauka-gulako. Zer trataera eman behar konfiantzan esandakoei? Dena kontatu? Ez da erraza oreka aurkitzea. Bide batez, eta esan egin nahi dut, ez zait batere gustatu zenbait komunikabidek nola landu dituzten denboraldi amaierako arraunlari eta entrenatzaileen joan-etorrien albisteak. Konturatzen al gara kazetarion lanak ondorio asko dituela herrietan, arraunlariengan eta entrenatzaileengan? Errespetua zor diegu guztiei, hara, errespetua hiztegiko hitzik politena eta garrantzitsuena da.

**Entrenatzaile lanarekiko errespetua aipatu duzu. Santurtzin entrenatzaile lanetan aritua zara bi urtez. Ez dugu lehen lanpostuen zerrendan sartu.**

Asko ikasi nuen. Entrenatzaileen eta zuzendaritza kideen lana baloratzen ikasi nuen, eta arraunlariok, baita neronek ere, gurea bakarrik ikusten dugula. Orduetik miresten ditut urte luzetan entrenatzaile lanetan ari direnak. Esaterako, 43 urtean ari da Jose Luis Korta. Izugarria da entrenatzaile generazio gaztea egiten ari dena ere: Orbañanos, Salsamendi, Dani Perez, Joseba Fernandez presio handiko taldeetan ederki ari dira erantzuten. Entrenatzailea emaitzaren menpekoa da, telebista audientzien baitan dabilen bezala. Hara,

“Zorionez, arraunarekin nituen zorne guztiak bere garaian atera nituen, ez nago inorekin haserre edo inori txarra desiratzeko”.

“Orion gogoeta publiko gutxi egiten da, modu antolatuan eta errespetuz politiken errepaso bat egi-tea osasungarria litzateke”.





ez dut sekula bi urte horietan adina estres izan, bizkarreko min sufritu edo hainbeste ile galdu...

Bestalde, ondo etorri zitzaidan herritik atera eta Orio urrutitik ikustea. Orduan ohartzen zara gure arraun historiaren handitasunaz: jendeak Oriori dion lilura ikusten duzunean. Baina konturatzen zara beste arraun unibertsoak ere badaudela, gurea bezain errespetagarriak. Nik ezkerraldeko arrauna ezagutu nuen Santurtzin, haientzat arrauna beste zerbait da, baina zerbait garrantzitsua da.

**Derrigorra da herriko traineruari buruz galdetzea. Oraindik ez dakigu zein izango den entrenatzaile datorren urtean. Nola ikusten duzu kontua?**


Errespetuz hitz egin nahi dut. Halere, uste dut, hitz egitea eta kritika egitea ona dela. Oraingo zuzendaritzak eta aurrekoek borondatez egin dute lana, ikusten ez dena eta esker txarreko lana. Urbietak eta ondokoek gazteekin egiten duten lana bakarra da, izugarria. Horrez gain meritu handia ematen diot krisi ekonomiko gogorra izanik klubak ondo eutsi izanari. Jende asko dabil agindutakoak ordaindu ezinik. Orain, proiektu irabazlea behar dugu. Bi akats nabarmen egin dira, nire ustez, azken hamabost urtetan. Batetik, entrenatzaileak hautatzerakoan betoak egon dira. Zein da onena, deabrua? Ekarki deabrua, are gehiago, ezinean gabiltzanean. Beste taldetara doazen arraunlariei sei edo hamabi mila euro kobratzea izan da bigarren akatsa. Proposamena egin zenean iritzi bera nuen: Klubak niri ez dit ezer zor, baina nik ere ez klubari. Niri asko eman dit, baina nik ere dena eman dut. Ulertzen dut bigarren urteko senior baten bila badatuz klubak defentsa eskubidea behar duela. Hasieran esan zen

kasu guztiak banaka aztertuko zirela, baina gehienok ordaindu egin dugu. Azken hamabost urtetan Oriotik kanpora joan diren berrogeita hamar arraunlari inguru atzeko atletik atera dira. Horrek giroa kutsatzen du, eta arrakalak handitu du herrian.

Denona da ardura. Uste dut Orion arraunari buruz gogoeta publiko gutxi egiten dela, modu antolatuan eta errespetuz politiken errepasso bat egitea osasungarria litzateke. Ikasi beharko genuke gaiak natural lantzen, guztiok. Gaur arte norbere interesa defendatu dugu sutzuki. Ez da arraun elkarteko zuzendaritzaren arazo bakarrik, Orioko arraun unibertsoa kluba baino zabalagoa da. Baliatu dezagun. Orioren ibilbidea aztertzen baduzu une historiko txarrean gaude. Bederatzi urte behar izan genituen azken Kontxako bandera irabazteko, orain beste hamar goaz irabazi gabe. Liga ere ez dugu inoiz irabazi, tartean jaitsi ere egin ginen. Erreferentzialtasuna galdu dugu. Orion, historikoki, irabaztea izan da lehentasuna, pixkanaka gazte jendea sartu izan da traineruan baina proiektuak maila galdu gabe. Azken urtetan Hondarribiak egin du hori. Galdera erantzun dezagun: gaur erakargarria al da Orio proiektua arraunlarientzat?

**Agerraldia egin zenute arraunlari mordoxkak Donostiako Udalak 1939. urteko bandera palmasetik nola kendu duen salatzeke. Donostiako Udalak batu ditu denak.**

Hori da arrauna eta hori da Orio. Elkarrekin hitz egiten ez duen jendeak bat egin du gure arbasoek urtean lortu zutena defendatzeko. Haserre aurpegiak daude argazki horretan, eta ez da gutxiagorako. Urtetan banatu egin gaitu arraunak, argazkian batu gara. Hori da bidea, ez dut zalantzarik.









**ITZALA**  
kartetan jokatzeko  
aprosatu  
tel. 943 83 12 59

 **Sagasti**  
**LEIHOAK**  
ROBERTO SAGASTI  
Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 **ORIO** (Gipuzkoa)

 **Orioko**  
**Herri**  
**Ikastola**  
Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**PIZZERIA**  
  
**KALETA**  
ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK  
 **ROSA**  
GARBINE ARRILAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL: 943 13 19 43  
www.facebook.com/proyadendaorio  
BIO eta DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

**Gabon**  
TABERNA  
✓ Pintxoak  
✓ Plater konbinatuak  
✓ Ogitaratekoak  
943 83 06 09

*Garbine*  
*Arregi*  
*Moda*  
*de*  
*osagarriak*  
*Herriko plaza, 5*  
*635 706 265*  
*jaiegunetan goizez zabalik!*

 **GARMENDIA**  
HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK  
Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
informacion@garmendiagestion.com

**HAIZE BERRI**  
taberna-jateetxea-kafetegia  
Plater konbinatuak,  
bokatufak,  
hanburgesak,  
raziok,  
eguneko menua...  
**ostiraletan**  
**pintxo**  
**poteka!**  
eta etxera eramateko  
zerbitzua!  
**943 831 623**  
Orioko Kiroldegian, Eribera 1

 **Zarautz**  
Hileta Zerbitzuak  
Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

> Hilerrien kudeaketa  
> Hileta zerbitzu orokorrak  
> Zerbitzu iraunkorra

 **Harrespil**  
Hilerri Zerbitzuak



**MENDIZABAL**  
**AROTEGIA**  
Naurriko armairuak  
eta egurlanak  
943 831 175 Altxeri bidea  
645 708 491 Beti-Alai etxea  
mendi@arozgi.net 20810 Aia-Orio

Ile apaindegia  
**MARIJO**  
 Neska eta  
mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - behea  
Tel. 943 13 47 29  
**ORIO**

  
943831048  
610697668  
**www.fotoramiro.com**

 **mauka**  
PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK  
TEL-F - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
i.asenjo@hotmail.es  
INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO



# Txanponaren bi aldeak

**Denboraldia amaitu eta taldeen arteko arraunlarien enkantea hasten da: nork non jarraituko duen, nor etorriko ote den, zenbat eskaini dioten...**



Aitziber Lizarralde

**D**uela bi aste pasatxo, irailaren 11n zehazki, urteko egun polit eta garrantzitsuenetari-

ko bat izan zen oriotar ororentzat:

Kontxako banderaren bigarren igandea.

Festa giroa nabarmena zen, goiz-goi-

zetik, gure arraunlariei babesa emateko eguna

zen eta. Gauean ere festak Orion jarraitu zuen, arraun-

lariak ere batu ziren parrandara eta agur esan zioten 2016ko

denboraldiari. Orain, ordea, azken urteetan garrantzia han-

dia hartu duen momentua hasten da, balorazioak eta fitxa-

keta berriak egiteko garaia. Eta, pertsonalki, hartu duen

garrantzia ez dut batere gustuko.

Arrauna ere kirola da, gaur egungo gizartearen adierazle

bihurtzen ari dena. Herri arteko apustu bezala hasitakoa

asteburuetakoa audientziarik handienak dituen lehiaketa

bihurtu da. Eta horrek, nire ustez, alderdi negatibo asko

ditu. Batzuk azpimarratu nahiko nituzke.

Lehen esan bezala, denboraldia amaitu eta taldeen arteko

arraunlarien enkantea hasten da: nork non jarraituko duen,

nor etorriko ote den, zenbat eskaini dioten... bai, bai, diruaz

ari gara, ez baita askotan aipatzen arraunlariek –gehienbat

mutilek– jasotzen dutena, poltsikoa goxatzen duen txin-

txin soinu hori. Honekin ez dut inondik inora esan nahi

merezi ez edo merezi dutenik, baino bai honek guztiak

arraunaren oinarritzeko esentzia galtzera bultzatzen duela,

hau da, koloreak jada sentimenduetatik urrun daudela.

Zenbaki asko egoten dira dantzan, talde batzuk beste

batzuk baino gaitasun ekonomiko handiagoa dute eta,

noski, hori arraunlarien mugimenduetan antzematen da.

Batzuetan arraun klubek ere beren taldearentzat interesgarri ez diren arraunlariei kanpora mugitzen eta arraunaz disfrutatzen utzi beharrean, oztopoak jartzen dizkiete, hurrengo denboraldian gertu edukitzeko, ilusioz entrenatzen duten gazte kuadrilla bat dela ahaztuta.

Mutilez ari naizela dirudien arren, gauza baten beldurra daukat, aipaturiko egoera eta arrauna ulertzeko modu hori nesketan ere zabaltzea. Taldeen arteko fitxaketetan, nahiz eta eskaintza ekonomikorik ez egin, arraun egiteko kondizio berezien eskaintzak egon badaude. Nire ustez, nesken artean dagoen lehiak zentzu batzuetan orain arteko arraunaren esentziari eusten dio. Herrikoak direnek eta herri bertakoak ez direnek ere koloreak sentitzen dituzte, taldekideak lagun bihurtu eta emaitza guztien gainetik taldea jartzen dutenak direlako, baina hemen ere pixkanaka zabaltzen ari da merkatu beltza.

10 hilabete dira entrenatzen ibiltzen direnak, 900 bat ordu guztira izerdia botaz pasatzen dituztenak, eta hori denboraldi amaieran banderarik edo trofeorik ez badago denboraldi eskasa izan dela entzuteko. Hasi bezala bukatzen dute denboraldia, esfortzua eta pasa dituzten entrenamendu orduak inork apreziatu gabe, derrota sentimenduaz beterik.

Badakit dagoeneko zaila dela hasieran zuen herrimin eta lagun arteko jolasa berreskuratzea, zaila talde hobea lortzeko interesetan herrikoak ez diren arraunlariak nahi ez izatea, zaila dirua alde batera uztea, baina ez da ezinezkoa lehengo arraunaren berezitasunei era batera eustea; izan ere, ez al da ederra koloreak eramateaz gain, koloreak sentitzea?



# Herrimina *morriña* denean

'Batzen gintuen bareak zein ekaitzak...' zioen, besteak beste, Benito Lertxundiren ahotsean, Prestigeiko hondamendia dela eta *Nunca Mais* mugimenduaren alde egindako kantuak, Euskadi Galiziarekin elkartu nahi zituen kantuak. Bistan da, **itsasoak elkartzen gaituela euskaldunak eta galziarrak**, baina baita beste zerbaitek ere.





**TESTUA: RIKARDO UZKUDUN**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**



“Anaia bat, lehengusu bat eta hirurok etorri ginen Mutrikura. Hemen lana izango genuela esan ziguten.”

**ABELINO BLANCO**

“Bizi kalitatea hobea da hemen, baina horren alde borroka egin delako.”

**PATIFERNANDEZ**

**X**VI mendean, Ternuara egindako bidaiak baino urte batzuk lehenago, Galiziara eta Asturiase-ra joaten ziren oriotarrak bale arrantzara. Horren frogak topatu zituen Selma Huxley ikerlariak, eta honela jasota dago Marta Trutxuelo Garciaren *Orio, historian zehar* liburuan: *XVI. mendean Orioko arrantzale asko Llanes, Lastres, Bares, Malpica, Layon, Burela eta, Asturias eta Galiziako beste portuetara joaten ziren baleetara. 1560. hamarkadarako badaukagu Galizia eta Asturiasen arrantzan ibilitakoaren arrastoa.*

Baxurako baporeak ere, sarri askotan porturatu izan dira Celeiro, Burela eta A Coruña ko kaietan, atunetan direla, edo eta Mediterraneora edo Azoretara bidean. Compostelako Santiagorako erromes bidea ere, Donejakue bidea, arraunean egin zuen oriotar kuadrilla batek aspaldi ez dela.

Azken urteetan, horrexek, arraunak –eta oporraldiek– eusten dio galiziarren eta oriotarren arteko loturari. Estropada ikustera Galiziara, edo Kontxako astean galiziarrek gura, Txurrukako aterpetxera maiz, joan-etorrian ibili izan gara. Bada, bidean, herriangeratu denik ere. Halaber, ahazteko ez gaude nola egin zitzairen errezebimendua Tiraneko arraunlariei eta Galiziako neskei Orioko Udaletxeko bal-koian.

Baina, itsasoaz gain, ez dago esan beharrik elkartzen gaituena handik etorritako gizon-emakumeak direla. Etorkizun oparobaten bila etorri ziren, familia bat osatu eta gure artean bizi dira. Bere garaian, izugarritzko pila etorri ziren inguruko zenbait herritara, Trintxerpe, Ermua, Barakaldo.

Aiara eta Oriora, ez ziren hainbeste etorri, baina bai batzuk batzuk. Galiziako hauteskundeak ere pasa berri diren honetan, eta igandekoa aitzakia hartuta, herriko zenbait galiziarrekin hitz egin dugu, beren historia pertsonala eta bi herrien arteko lotura harilkatzeko asmoz.

Gainera, hilabete hauetan, galiziarrek Euskal Herrian izan dituzten bizipenez, filma bat grabatzen ari dira: *Sitio Distinto*. Davide Cabaleiro galiziar euskalduna zuzendari duela.



## Abelino Blanco

Cando Cuns, A Coruña. 1944

### **Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Lanean, lanean nire bizitza osoan. Sei urtetatik etxean, eta gero, hamabi urtetatik kanpoan. Kostatik urruti ez, baina barrualdean bizi ginen. Bi behi bagenituen etxean, eta lurrak. Haiexek ematen zutenetik bizi ginen. 7 senide ginen, eta aita 9 urte nituela hil zen.

### **Eta, halako batean, 19 urterekin etxetik ateratzea erabaki zenuen. Zergatik? Zeren bila?**

Abenturara. Anaia bat, lehengusu bat eta hirurok etorri ginen Mutrikura. Hemen lana izango genuela esan ziguten, eta halaxe etorri ginen, obran lan egitera. Han ere bazegoen lana, eta aritu nintzen, baina desberdina zen. 15 egun hemen, 15 egun han...

Nire anaia nagusia, aurretik, Bartzelonan ere egona zen, eta geroztik, Valentziara joan zen, eta han dago gaur egun. 7 senideetatik, bat izan ezik, beste guztiak alde egin genuen: Andorrara, Valentziara, Ameriketara... Eta horrela hasi ginen Moyua enpresarentzat lan egiten, obretan. Hiru urte egin nituen, eta Getarian lanean nenbilela, 1965ean etorri nintzen Oriora, andregai ezagutu nuenean. Gero soldaduskara joan nintzen, 22 urterekin, Pontevedrara, eta hura bukatutakoan, ostera, Oriora. Ezkondu, obran lanean jarri, eta handik urte batzuetara Lasarteko Michelinen hasi nintzen, jubilatuta arte.

### **Nola sentitu izan zara hemen?**

Nik jende asko ezagutzen dut, eta ni ere ezagutzen naute. Ezagun guztiei kasu egiten diet, eta ez dut arazorik izan inorekin. Ondo sentitu izan naiz hasieratik.

### **Bueltatzen zara Galiziara?**

Bai urtero. Familia osoa joaten ginen, hegazkinean. Orain ere joaten naiz nahi dudanean, 8-10 egun-edo pasatzera, arrebarengana. Izugarri aldatu da hura ere, %80a. Errepideak eta abar, hemen bezala. Hori bai, industriarik ez dago gure herri inguruan, harri enpresa bat izan ezik.

### **Eta galegoa, hitz egiten al duzu?**

Hori ez daukat ahazteko. Aniceto Mendez, eta Jesus *alkilerekoarekin* hitz egiten dut, eta baita gazteekin ere: Bitor, Ruben edo tokatzen denarekin. Euskara ere hitz egin beharko nukeen honezkero, baina asko ulertzen dudan arren, ezin barrura sartu!



## Pati Fernandez

Cee, A Coruña. 1986

### **Nola ezagutu zenuen Orio?**

Nire bikotearen anaien bidez ezagutu nuen. Bitorrek eta Rubenek urteak daramatzate Orion, hemengo bi neskekin ezkondu daude. Lehendabizi oporretan etorri ginen, eta ondoren, lan bila. Mutil laguna anaien enpresa berean lan egitera etorri zen, eta nik ere lana topatu nuenez, hementxe gaude.

### **Etorri zinenen, zerk harritu zintuen gehien?**

Beste zerbait espero nuen. Azkenean, hara albisteen bidez iristen dena eta benetako errealitatea oso desberdina dira, garai hartan gainera, giro beroagoa zegoen politika dela-eta. Bestela, Galiziaren oso antzekoa da klima aldetik, jan konpantzetan eta abar.

### **Eta, bizitzen jarrita, zer kosta zaizu gehien?**

Oraingo, hizkuntza, euskara. Urteen poderioz bazoaz gauzak ikasten, baina hizkuntza zaila iruditzen zait. Hala eta guztiz ere, pixkanaka-pixkanaka bagoaz aurrera.

### **Orain, urrutitik, nola ikusten duzu Galiziako gizartea?**

Honekin konparatuz ikusten dudana aldea da, beharbada, atzeratuago dagoela langileen eskubideei dagokionez. Han, nolabait esateko, jendea ez da horren borrokalaria, ez du horrenbesteko borrokarik egiten beren eskubideen alde. Konformistagoa bezala da, edo beldur handiago du. Bizi kalitatea hobea da hemen, baina horren alde borroka egin delako, eta egiten jarraitzen delako. Han jendearen beldurrarekin jolasten dute, eta hemen ere bai, baina, hala eta guztiz ere, jendeak borrokan jarraitzen du.

### **Kostakoa izanda, zer akordatzen duzu Prestige auziaz? Nola bizi izan zenuen?**

Diru-laguntza handiak izan ziren, ez bakarrik itsasoaz bizi zirenentzat, baita patroli agiri bat zuen edozeinentzat ere. Zenbait etxetan milatik gora euro jaso zituzten hilero laguntzetatik soilik. Pentsa! Eta egia esan, jende boluntario asko etorri zen kanpotik laguntzera, eta horretaz ere aprobetxatu ziren batzuk. Esate baterako, ostalariek prezioak igotzeko aprobetxatu zuten. Kanpotik, edo horretatik zuzenean bizi ez ginenontzat, desastre hutsa izan zen, katastrofea. Baina, nolabait horretatik bizi zirenentzat pagotxa izan zen. PPK jendea diruz erosi zuen.





## Natalia Muñoz

Mondariz, Pontevedra. 1984.

### **Nola ezagutu zenuen Orio? Noiz etorri zinen lehendabiziko aldiz?**

Euskal Herrira etorri nintzen lehen aldia 2013ko irailean izan zen. Orio nire mutil-lagunaren bidez ezagutu nuen 2014an.

### **Zerk harritu zintuen gehien? Izan al zen zerbait atentzioa eman zizuna?**

Euskal jendaratean integratzeko erraztasunak, abegikortasunak eta konplizitateak harritu ninduten. Jende noblea zaretxe. Emakume modura, errespetuak eta defentsak.

Matxismoaren aurrean gizarteak gehiago erantzuten du. Politikari dagokionez, Galizian baino debate gehiago dago.

### **Hara eta hona zabilzan honetan, nola ikusten duzu Galizia-ko gizartea azkenaldian?**

Identitate propioaren sentimendu zabalago bat dago, kultura, erreakzio eta kritika gehiago, baina dirudienez ez da nahikoa. Alderdi politikoen barne zatiketek giro dinamikoago bat sortu dute, baina aldi berean jendea ere nahastu egin da. Askok ezagunari botoa ematen jarraitzen dute, nahiz eta okerrena izan. *Kazike* giroko kultura batek jarraitzen du, aldaketari beldurra diona. Hainbesteko egurra eman digute, jendeak erreakzionatzen badu ere soilik maila lokalean antzematen dela. Nire herrian adibidez, beti APk eta PPK gobernatu izan du azken hauteskunde lokalak izan ziren arte, zeinetan gehiengo galdu zuten. Halere alderdi tradizionalak oso sustraituta daude, beren hautesleek ez diete hutsik egiten eta belaunaldiz belaunaldi hala izaten jarraitzen du. Horregatik Galiziako Xuntari dagokionez oraindik bide luzea egin beharko dugu aldaketarik ikusteko.

### **Eta galegoa, nolakoa da hizkuntzaren osasuna?**

Galegoaren erabilera atzerantz doa, jende askok ulertzen badu ere gutxi erabiltzen dute, gehienbat hirietan. Galiziko Xuntak hizkuntza politikan egin dituen inbertsio eskasak onorioa da. Gehiago esanda, bere politikak aurkakoak dira. Hizkuntzaren defentsa herritarren lanari esker egiten da, elkarte edo talde txikien bidez eta orokorrean instituzioen laguntza ekonomikorik gabe. Etenik gabeko borroka da. Psikologia mailan egin beharreko lan asko gelditzen zaigu oraindik hizkuntzaren estatusa aldatu ahal izateko.

“Galegoaren erabilera atzerantz doa, jende askok ulertzen du baina gutxi erabiltzen dute”

**NATALIA MUÑOZ**

“Amorrazioa ematen dit egoera politikoa ez aldatzeak.”

**ELI PALACIOS**

“Leku honi *kariño* handia hartu diot, galiziarren tankerako jendea baita hemengoa.”

**JESUS SIOANE**



Eli Palacios

Donostia, Gipuzkoa. 1982

### **Zu Donostian jaio zinen, baina bost urterekin Galiziara joan zinen bizitzera, A Coruña, hiriburura.**

Bai, nire ama hangoa zelako. Hala ere, amaren ahizpa hemen geratu zen bizitzen, eta urtero etortzen ginen izeba bisitatzera. Horregatik edo, beti sentitzen nuen zerbait barruan, hona etortzeko-edo deitzen zidana. Azkenean, ikasketak amaitutakoan, 21 urterekin etorri nintzen, lanera.

### **Eta Oriora, nolatan iritsi zinen?**

Galiziatik etorrita dekorazio enpresa batean hasi nintzen lanean, eta han nire bikotea ezagutu nuen. Bera, hernaniarra da, baina udak Orioko kanpinean pasatzen zituenez, azkenean, Orion bizitzea erabaki genuen. Erroldatu nintzela 8 urte dira, eta beste pare urte Kanpinean bizitzen aritu ginenez, 10 bat urte daramatzat Orion.

### **Eta zerk harritu zintuen gehien, zerbaitek harritu bazintuen, Galiziatik etorri zinenen?**

Egia esan, asko aldatzen da bizitza han eta hemen. Desberdinak gara. Hasiera batean, pixka bat itxia egiten da hau, kosta egiten da sartzen. Gero bai, harremanak egiten dituzunean errazagoa da, oso noblea da jendea, baina hasiera batean... Niri izugarri lagundu dit euskarak, euskaltegian apuntatu nintzen eta horrela jendea pila bat ezagutu, eta harremanak egin ditut. Baita lantokian ere. Baina, hasieran nahikoa zaila da bai.

### **Euskaraz oso ondo egiten duzu.**

Bueno, hor nabil! Aurten euskaltegira joan behar dut berriz.

### **Nola ikusten duzu hemendik Galizia?**

Nola esango nuke... Hemengo jendeak gehiago borrokatzen du bere eskubideen alde. Justiziaren kontzeptua desberdina da. Han, jendeak ikusten ditu gauzak ez daudela ondo, kexatzen da, baina horretan bezala geratzen da. Galiziarrek konformistagoak-edo garela esango nuke. Pixka bat amorrazioa ematen dit egoera politikoa ez aldatzeak, ikusten dudalako azkenaldian gazte jendea ari dela konpromisoa hartzen. Ez dakit, amorrazioa ematen dit, jakinda, gainera, herri umila eta langilea dela galiziarra.



Jesus Sioane

Arzúa, A Coruña. 1943

### **Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Nahiko gogorra izan zen. Sei seme-alaba ginen eta ama gu ume ginela alargundu zen. Beraz, gazte nintzelarik, onenean, laga behar izan nuen etxea, etorkizun hobe baten bila. 15 urte nituela etorri nintzen Bilbora, anaia nagusia, benetan nire aitatzat nuena, hemen zebilelako arotz. Okindegi batean hasi nintzen lanean, baina urte beteren buruan, Donostiara etorri nintzen, ordurako anaia Zarautzen zebilelako lanean, motoen Derlan lantegian, eta Bilbon oso maitatua sentitzen nintzen arren, gauez lan egitea gogorra zelako.

Soldaduskara joan nintzen, eta ondoren Orion hasi ginen lanean, lehendabizi erriorearen beste aldean, eta gero hortxe Aita Lertxundiko aparkalekuan dagoen horretan. Orduz geroztik, hementxe nabil, lehen sozioarekin eta gero baka-rrik, irauten.

Ezkonduta eta emaztea eta biok, getariarra bera, Orion jarri ginen eta hiru seme-alaba izan genituen. Berak etxean jostun lanak eginez, eta ni tailerrean lan eta lan, atera dugu bizitza aurrera.

### **Hona etorritakoan zerk harritu zintuen gehien?**

Egia esango dizut. Urte hauetan guztietan, oso lagun onak egin ditut, eta ez dut inoiz inorekin arazorik izan. Oso ondo pasatu dut, nahiz eta gero bakarrik geratu nintzen, anaia Gasteiza joan baitzen Peugeotetan lan egitera. Leku honi *kariño* handia hartu diot, galiziarren tankerako jendea baita hemengo: maitekorra, eta ona zarela ikusten badute estimatzen zaituztena.

### **Eta Galizia, oporretan eta joaten zarenean, asko aldatu al da?**

Izugarri aurreratu du Galiziak industrian, nekazaritzan, errepideetan. Adibidez, gaur egun, autobia daukazu haraino, xentimorik pagatu gabe.

### **Eta galegoa, ez zitzaizun ahaztuko!**

Hori sekula ere ez, ezta nahi ere. Euskara bezala da. Triste da euskaldun-euskaldunak euskaraz egiteari lagatzea, horri eutsi egin behar zaio, gurea da, barruan daramaguna.





Gratxina Lertxundi



Ander Atorrasagasti



Andoni Campos

## 31 ikusteko jaioak gaitun/k!

**“Gogoratzen al zarete 2018. urtean ...”**

**Gratxina:** gogoan dut, oraindik oinez ibiltzen ia ez nekiela ere, errezibimendura jaisten ginen bakoitzean, amari galdetzen niola: *ama, zergatik jaisten gara igandero herriko plazara?*

**Ander:** edo gogoratzen dut, baita ere, Kontxako errezibimenduaren ostean herrian zehar gazteok egiten genuen *bota-ura*.

**Andoni:** gogoan dut, iraileko lehen bi igandeetan, herria horiz mozorrotu eta goizean okindegira joaterako orduan, kaleetan egoten den mugimendu eta zurrumurrua: *gaur bai!*

**Ander:** eta Orioko arraunlariak Il Gelatora Kortarekin gosaltzera joaten ziren garai hura?

**Gratxina:** Jose Luis ahotan, 2001. urteko herriaren buru makur aldia aipatu nahiko nuke; hura ere Kortak eraman zuen Castrora nola edo ahala.

**Ander:** ziur nago Altxerriri orduan sartuta geratutako arantza bere ilobak aterako duela berandu baino lehen.

**Andoni:** hori da hori zoramena gure traineruetako batek berriz ere Donostiako bandera ekarriko balu etxera ...

**Gratxina:** irudia buruan grabatua daukat: Donostiako urekin lotzen den arranpa horiz; herriko plaza horiz ... eta arraunlariak hain berezia den bandera hori udaletxeko bigarren balkoian astinduz.

**Ander:** hori 2007. urtean gertatu zen –gogoratu, orduan ere Santiago-raino joan ginela arraunei tiraka–; baina gogoan al duzue Salsamendik eta bere mutilek zortzikoan 2005ean azken Espainiako txapelketa ekarri zutenekoa?

**Andoni:** eta zein urte izan zen emakumeak traineruan arraunean ikusi genituen lehena?

**Gratxina:** 2010. urtea. Akordatzen naiz emakume koadrila erraldoi hura txalupa handia ateratzen ikustea, ni aldamenean plastikozko skiff txiki batean sartuta nengoela ... Hura zen hura ilusioa!

**Ander:** oker ez banabil, zerotik hasitako proiektua izan zen, zeinak urtero, hobetzeko esfortzu handi bat egin zuen eta gaur egun, punta puntako trainerua da!

**Gratxina:** makina bider Kontxako ohorezko txandan sailkatutakoak gara: 2016ko lehen igandean, banderatik 3 segundora geratu ziren; hainbat zurrumurru eta esperantza zabaldu zen orduan ere gure herrian: neskek irabazi behar dute aurten mutilek irabaziko ez dutena ...

**Andoni:** hala ere, urte horietan guztietan ez da izan dena ur-aparretan ibiltzekoa ... Urtebetez TKE ligatik kanpo egon ginen. Hura kolpea jaso genuena gure traineru handia lehen aldiz onenen artean lehiatzen ez ikustean.

**Ander:** matematikoki postua galdu zutenean, Castron nintzen lanean eta ez zen giro oriotarren aurpegietan.

**Andoni:** traineru barnean ere *triskan-tza* gertatu zen urtebete lehenago: arraunlari beteranoak alde egin eta gazteak sartu.

**Ander:** zoritxarrez, oraindik TKErako erritmorik ez zuen taldea.

**Gratxina:** proiektu batek beti behar du izan gazteentzako aukera eta fruituak emateko denbora. Begira, Aizpe-erok ongi hasi zuen bidea 2016an gazteentzako, baina ez zituen nonbait,

espektatibak bete.

**Ander:** joango ez dira ba gazteak gure klubetik ... Hain pazientzia gutxirekin gazteen itxaropena zapuzten da.

**Andoni:** gazte askoren kasua izan zen; hemen goiko traineruan sartzeko aukerarik ikusi ez eta beste traineruetara joan ginen. Beste moduko aukera batzuk aprobetxatzeko esperantzarekin

**Gratxina:** dena den, Orio arraun elkarte irabazle bat izan da beti eta grin horrek bereizten gaitu inguruko taldeengandik. Horren adibide da 2017an sortu eta oraindik indarrean jarraitzen duen proiektua ...

**Ander:** zorionez, zuek –Andoni eta Gratxina– eta beste herriko seme-alaba ugari itzuli dira gure tostarera arraunean egitera eta dena aldatzen ari da: etengabeko uberan goaz!

**“... 2018. Urtean, etxeko 14 neska-mutil barruan zirela, 32.na ekarri genuen etxera”**

**“Altxerriri orduan sartuta geratutako arantza bere ilobak aterako du”**

Ander Atorrasagasti

**“Grin horrek bereizten gaitu inguruko taldeengandik”**

Gratxina Lertxundi

**“Hori da hori zoramena gure traineruetako batek berriz ere Donostiako bandera ekarriko balu”**

Andoni Campos

# Etxegabetzerik gabeko herria izateko bidean



Antonio Freire etxegabetearen aurkako agerraldian, hainbat herritaren eta politikariren babesean.

Isilpean bizi dute askok. Mailegua eta hipotekak ordaintzeko adina diru sarrerarik ez, eta etxeko giltzak entregatu eta bizitokirik gabe gelditzen dira, isilean sufrituz. Baina badira arazoari adarretatik heldu eta argitara ematen duten kaltetuak.

Arazoaren berri ematean, hotsa ateratzean, etxerik ez galtzeko heldulekuak bilatzeko aukera gehiago dituztela argitu du Hipotekak Kaltetutakoen Plataformako kide batek. *Egin beharreko zerbait da hori, gugana jotzea; ahalegin guztiak egingo ditugu etxe-kalera-  
tzeak gelditzeko, kaltetua laguntzeko.*

## Laguntza eskatzea, ezinbestekoa

Eta horixe egin zuten Antonio Freire oriotarrak eta Mila Lazkano aiarrak, *Etxegabeteak Stop* plataformara jo.

Behin ordainketaren batzuk zintzilik uzten direnetik etxegabetzerainoko prozedura azkarra da oso. Bankuak epaitegian demanda bat aurkeztu du.

Auzi-eskea egiten denetik 10 eguneko epea izaten da erreklamazioa jartzeko. Eta, askok, epe hori pasa ondoren eskatzen dute laguntza, Freirek eta Lazkanok, kasu.

Laguntza zenbat eta beranduago eskatu, orduan eta zailagoa izango da konponbide egokia lortzea. Izan ere, behin 10 eguneko epea pasata, defentsak ezin du frogarik edo argudiaketa-rik aurkeztu.

## Orion eta Aian, kasu bana

Egoera horretan aurkitu dira Orioko eta Aiako bi kaltetuak. Behin epea pasata, banketxearen aurrean agerraldia egin eta haiekiko desadostasuna publikoki agertzeko erabakia hartu ohi dute kaltetuek. Jarrera horren aurrean bankuek erabakia birpentsatzen dutela eta etxegabetea atzera botatzen dutela azaldu du plataformako kideak.

Mediatikoki oihartzun txarra izatea ez zaie komeni bankuei, horregatik gel-

ditzen dute etxe-kalera-  
tze prozesua. Freire eta Lazkanorekin hori egin zuten, kexatu, eta bi kasuetan lortu dute etxe-kalera-  
tzea bertan behera uztea. Oraingoz bai bata eta bai bestea beren etxeetan bizi dira.

## Etxegabeteen kontrako herria

*Etxegabeteak Stop* plataformak dekalogo bat garatu eta aurkeztu zuen iazko martxoan. Pobreziaren, etxegabeteen eta desberdintasunen kontrako hamar arau biltzen ditu. Babes handia jaso du dekalogoak, ia alderdi guztiek babestu dute, baita hainbat plataforma sozialek eta sindikatuk ere. Orioren kasuan, irailaren 27ko udalbatzarrean jarri zen mahai gainean gaia eta aho batez onartu zen Bilduk eta PSEk aurkeztutako mozioa.

Orio *Kalera-  
tzerik Gabeko Herri* deklaratu zuen mozioak eta hala izan zedin neurriak hartzeko konpromisoa hartu zuen Udalak.





### Kaleratzeen inguruan

Gizarte inklusioa bermatzeko elementu ezinbestekoa da etxebizitza. Krisialdiak kolpe ikaragarria eman die familiei, Orion ere. Eguneroko bizitzari aurre egin ezinik, zulotik argia ikustea ez da erraza izaten. Horretarako daude oinarrizko gizarte zerbitzuak, iluntasun horretan, argitasuna eman eta zulotik irteten laguntzeko.

Kaleratzeak ekiditeko, gizarte zerbitzuetatik egin daiteken prebentzio lana ezinbestekoa da. Eguneroko gastuei aurre egiten laguntzeko eta, denboraz, zorra ordaintzeko modu ezberdinen bilatze prozesuetan laguntzeko.

Judizializatutako kasuetarako, EUDELeK Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin sinatutako akordioa dago, familia etxebizitzaren galeraren ondorioz gertatu daitezken bazterkeria arazoei aurre egiteko neurriak hartzea baimentzen duena. Helburua familiek etxerik ez galtzea izanik, arazoari garaiz heletzea eta kaleratzea ekiditea izango da lehentasuna.



### Orain

#### Udaletxea eskubide sozialetan

Udaletxea gertuen dugun erakunde politikoa izanda, gertutasun horrek herritarren bizimoduan ondorio praktikoak eta zuzenak izan behar ditu, batez ere, bizitzarako oinarrizko eskubideak kolokan eta zalantzan jartzen direnean. Udaletxeetako agintariak agente sozialen eta ekonomikoen arteko bitartekari lanak eginez, eta Foru Aldundian nahiz Eusko Jaurlaritzan dauden agintari politikoei herrian bertatik bertara bizi duten erreallitatea azalduz, legeen moldaketa/aldaketa eraginez herritarren bizimodua hobetu ahal daiteke. EAEn herritarrak mugitzen dira. Orain egun gutxi, Donostian irailaren 8an, etxegabeen, pobreziaren eta desberdintasun sozialen aurkako dekalogo eguneratua aurkeztu zuten. Gainera gizartea hobetzeko 16 proposamen bidali zizkien alderdi politikoei. Bakoitzak bere zilborra bakarrik ikusi beharrean, hobeto genuke ondoan dauzkagun herritarrei noizbehinka aurpegira begiratzea..



### EH Bildu

#### Eskubide sozialak babestu

Kaleratzearen inguruan, udaletxeak nola jokatu behar du? Hau da luzatu zaigun galdera. Gure ustez egoera hauek gerta ez daitezen aurrez "zer egin?" izango zen landu beharrekoa, zeren kaleratze egoera baten aurretik, famili batek bere bakar-dadean pairatu behar duen bide luze eta mingarri bat dago. Beldurra, lotsa, aterabideak gero eta zirrikitu estuagoa eta bat batean etxetik bidaltzeko zorian. Ziur gaude, horrelako egoerei aurrez neurriak hartuko balira, kaltetuen sufrimendua arinagoa izango zela, Udalak herritar guztien eskubide sozialak babestu eta bermatu behar ditu, eta hori ezin da adierazpen hutsean gelditu. Kaleratzearen aurkako mugimenduekin elkarlanean, gertutasunetik aholkularitza eta bitartekaritza herritarren eskura jarri beharko lituzke Udalak, Orio Kaleratzerik gabeko eremua izendatu, beharrezkoa den protokoloa finkatu eta kaleratze arriskuan dauden herritarrei arreta berezia eskaini.



### PSE-EE

#### Etxegabetzeetatik libre dagoen herria

Konstituzioak dioen moduan, interes politikoen eta ekonomikoen gainetik pertsonak, familiak eta etxebizitza izateko eskubidea daude. Udaletxeak dira pertsonengandik gertuen dauden erakunde publikoak, eta, ondorioz, etxegabetzeak sufritzen dituzten horiei aholkatzeko eta laguntzeko baliabide guztiak erabili behar dira. PSE-EEK pobreziaren eta etxegabetzeen arazoari irtenbidea emateko egin diren ekimen guztiak babestu ditu, nola udal mailan, hala autonomikoan. Batzordeetan nahiz aldundian babestu dugu etxegabeen eskubideen alde lanean dabilen *Etxegabetzeak Stop* plataforma. Orioko PSE-EEen argi daukagu Etxegabetze libreen udalerrria izan behar duela Oriok, eta, honela, udalak dituen baliabideak familien eta pertsonen eskura izango ditu. Ez ahaztu gutako edozeinek bizi dezakeela horrelako egoera bat krisia ekonomikoaren eta lan prekaritatearen erruz.

# Bakeolak bideratuta, hainbat herritar elkartzen aritu dira herrian

## Bakeolako kideak

Euskal Herrian horren sustraituta dugun gatazka politikoak eragindako zauria sendatzea du helburu Bakeolak, historian zehar barru-barruko orbain bihurtutakoak azaleratzea eta elkarrizketaren bitartez konponbidea bilatzea. Izenak berak dioen moduan, bakea lantzeko ekimena da Bakeola.

## OLATZARTOLA

Bakeolak eta Udalak proposatuta, elkartu eta hitz egiteko prest agertu ziren sei lagun, ezberdinen arteko elkarrizketarako prest. 2015ean bildu ziren lehendabizikoz, Jesus Antonio Makazaga Manterola – Orio 1960–, Mari Jose Garate Etxeberria – Orio, 1963–, Iñaki Iturain Azpiroz – Orio, 1956–, Koro Sarasola Aldaz – Orio, 1954–, Eneko Dorronsoro Portu-larrume – Orio, 1972– eta Mirari Arriola Irizar – Orio, 1990–. Urtebeteren ondoren, beste urrats bat eman nahi dute: egiten dituzten topaketetara herritar gehiago bertaratzea nahi dute. Salatxo aretoko ateak parez pare irekita dauzkate, eta beso zabalik hartuko dituzte joaten direnak.

Taldeak hiru saio prestatu ditu udazkenerako *Konponbidean al goaz Orion?* izenburupean, hiru ostegunetan, Salatxo gelan. Urriaren 20 eta 27an, zine-foruma: *Mujeres en construcción* eta *Glen Cree* filmak emango dira, ondoren debatea sortzeko; eta azaroaren 4an, tailer bat egingo da: Oriotarron ordua. Herritar guztiak gonbidatuta zaudete.

### Zer da Bakeola?

**Maidar Martiarena–arduraduna–:** Aurreko agintaldian hasi ginen harremanetan Udalarekin, orduko alderdiekin. Ohar-

tu ginen garrantzitsua zela bizikidetzaren plan baten baitan hainbat gai jorratzea, tartean bakearena; eta alor horretan herritarrei ibilbide bat eskaintzea erabaki zen. Seiko taldea sortu zen eta indarkeria politikoak eta terrorismoak eragindako bizipenak elkarri azaltzeko bildu gara. Hitz egiteko. Hildakoak eta haien familiak beti aipatzen dira, eta hori garrantzitsua da, noski; baina indarkeria politikoak baditu beste maila batzuk eta horretaz hitz egitea ere garrantzitsua ikusten genuen, horrek eragina duelako herritarrengan.

### Nola askatu daiteke indarkeria politikoak eragindako kaltea?

**Koro Sarasola:** Kronologikoki hainbat gertakari historiko markatu genituen eta bakoitzak bere begiradatik kontatu zuen horiek gure bizitzan eta inguruan izandako eragina. Batzuk urruti sentitzen ditugu, beste batzuk gertuago. Segun eta minaren zein aldetan zauden, beste aldean dagoenari ez diozu horrenbesteko garrantzia ematen, baina horrela koetan bakoitzak zer esan baduela ikusten duzu.

**Martiarena:** Gertaera baten ikuspegi ezberdinak mahai gaineratzen dira..

**Sarasola:** Baina, tamalez, gure artean ikuspegiak ez dira horren desberdinak.





Bakeolako kideak bilera batean, beren ekitaldien berri ematen duen kartelarekin. KARKARA

Urrutiago sumatzen dituzun pertsonak bertaratu ez izan-  
nak pena eman dit.

**Zuk, Mirari, adinagatik besterik ez bada, gainontzekoak bai-  
no urrunago sentituko dituzu gertakari horiek...**

**Mirari Arriola:** Gazteagoa naizenez, nik transmisioz jaso du-  
dana kontatzen nuen bileretan. Ez dut besteek bezainbeste  
bizi. Kanpotik gehiago, eta gertutik azken hamarkada beste-  
rik ez. Aldi desberdinak bizi izan ditugu.

**Familiarengandik jasotakoa beran ahotik ere entzuteak,  
beren perspektibatik, baliagarria egin al zaizu?**

**Arriola:** Familian ez da asko hitz egiten horrelako kontuez.  
Kasualitatez bizipenen bat edo beste kontatzen dute, eta ho-  
rrrela izaten duzu horien berri; baina, oro har, gutxi hitz egi-  
ten da. Gune honetan gaiaz lasai hitz egitea lortu dugu, gune  
askea izatea, eta hori oso lorpen positiboa da.

**Sarasola:** Bai, bizipenak modu askean kontatzen ditugu.  
Gutxi edo gehiago, guztiak ondo moldatzen ginen. Aniztasu-  
netik herren gelditu gara, motz, ez dugu asko eztabaidatu.

**Baina taldea ez da itxia, ezta?**

**Martiarena:** Ez, ez. Eta beste perspektiba batetik hitz egin  
zezaketenak gonbidatu ditugu eta batzuk animatu dira, bai-  
na agenda arazoengatik ez dute etortzerik izan.

**Arriola:** Orain bigarren pauso bat eman nahi dugu. Taldea  
zabaldtu eta beste jende batek ere beren esperientzia konta-  
tzea gustatuko litzaiguke.

**Zuek, esaterako, nola izan zenun ekimenaren berri?**

**Sarasola:** Guri bezala, beste 20 bat pertsonari bidali zien

“Gune honetan gaiaz  
lasai hitz egitea lortu  
dugu, gune askea izatea,  
eta hori oso lorpen  
positiboa da”

**MIRARI ARRIOLA**



“Ez naiz damutzen nire bideaz, baina jende batek ez du barkatzen. Orio zentzu horretan oso herri primitiboa izan da”

KORO SARASOLA

Udalak gutuna etxera. Nik ez nekien horretan zebiltzanik ere. Bizikidetzak kontuak beste tokietan egiten zirela bai, bankien; baina ez hemen, Orion. Pentsatu nuen gune egokia izan zitekeela nik jasandako minaren aitortza eskatzeko eta kalte egin didatenei irekitzeko. Hasieran erreparoa ematen zidan, noski. Ez nekien nor egongo zen. Baina lagun batek esan zidan berari ere iritsi zitzaioela, eta hor egon behar genuela uste genuenez, animatu egin ginen.

**Martiarena:** Udalean zerrenda egin zen gaiarekin sentsibilizatuta egon zitezkeenena: mutilak, neskak, helduak, gazteak..., ahots desberdinak entzutea oso interesantea da.

**Sarasola:** Ados, baina berriz diot pena sentitu dudala ez garelako sentsibilitate guztietako jendea elkartu.

**Eta, gutuna jaso eta gero, zergatik animatu zineten?**

**Arriola:** Badakizu mina egon dela, jendeak sufritu egin duela. Min horri buelta ematea garrantzitsua da. Gainera, normalean, herriko ekimenetan parte hartzea animatzen naizenez, honetan ere bai!

**Sarasola:** Gauza bat neukan kontatzeko, nire bizipenak nituen zabaltzeko. Horregatik.

**Arriola:** Finean, denok jarri beharko dugu gure partetik egoera aldatzeko, aitortza bat emateko bizitakoari.

**Eta balio izan du sentsibilitate ezberdinetako jendearen falta sumatu arren?**

**Sarasola:** Guztiarekin ikasten da, baina pluralagoa izatea falta zaio...

**Arriola:** Akaso, kasu horretan, zailagoa egingo litzaziguke hitz egitea...

**Sarasola:** Baina horretarako gaude. Badakigu besteak ere sufritu egin duela, sufrimendua ez baita alde bakarrekoa.

**Arriola:** Sufrimendua denontzat berdina izan da, guztiek sufritu dute.

**Sarasola:** Orio herri txikia da eta arraunagatik bakarrik ia herritik botatzen zaituzte. Gai honekin berdin gertatu zen. Hasierako hauteskundeetan jendea alderdi batekin ala bestearekin lerrotatu zenean, oso gauza itsusiak gertatu ziren.

**Zergatik diozu hori?**

**Sarasola:** Nik, nire ikuspuntutik, batzuek gauzak oso erraz izan dituztela ikusten dut. Ez naiz damutzen nire bideaz, baina jende batek ez du barkatzen. Orio zentzu horretan oso herri primitiboa izan da: arrauna, Ikastola/Zaragueta, politika... Zerrenda batean egoteagatik elkarte gastronomikoetatik atera behar izan dute batzuek. Eta gezurrak ere esan dira eta gezurrekin kalte asko egin da. Horregatik entzungo nuke gustura beste alde batetik ikusi dutenen iritzia. Batzuetan kalean, behar ez den tokian, erraztasun handiarekin hitz egiten dute. Gustura entzungo nieke espazio honetan.

**Orioko bizikidetzak hobetuko litzatekeela uste al duzue elkarri entzungo bazenite?**

**Sarasola:** Uste dut baietz. Zauri asko irekita daude eta jende batek gatzat bota dio zauriari.

**Martiarena:** Herri guztietan gertatzen da hori. Baina askotan zuk bezala pentsatzen duenak ere bestelako ñabardura edo zertzelada batzuk ikusiko ditu. Zertzelada horiek beste baten ahotik entzuteak, parez pare zaudetela, beste ikuspegi bat ematen dizu.

**Sarasola:** Kontua da Orion guztiak ezagunak garela, guztiok dakigula zein den bestea. Orduan, pertsona bakoitza pentsaera batekin lotzen dugu...

**Baina horiek aurreiritziak dira, ez du zertan zuk uste duzuna pentsatu...**

**Sarasola:** Ez, horregatik gustatuko litzaidake gauzak aurgira esateko aukera edukitzea. Ezkutuan ibiltzea erraza da, merkeegi atera zaie batzuei.

**Eta nola animatuko zenituzkete orain arte parte hartu ez duten horiei?**

**Arriola:** Beste prozesu bat hastera goaz. Prozesu irekia izango da eta beso zabalik hartuko ditugu.

**Martiarena:** Prozesu honetan zine-forum antzekoak egingo ditugu, adibidez. Eta horietatik abiatuta, ezberdinen arteko elkarrizketak sortzea da asmoa. Esan bezala, atek zabalik ditugu.



## 31 eskutik



Garbiñe Manterola

### **Donostiar batzuentzat zaila izango da beren hiriaren historia gurea bezalako herri koskorretan sortutako arraunlariek eta arraunzaleek egin dutela onartzea**

**O**rain 80 urte, gure amona Krispina osabaren esperoan zela, tropa frankistak sartu ziren Orion. Izuak airean, Aginagara ihes egitea erabaki zuten irail hartan. 80 urte ez da distantzia handia maite dituzunak baditu protagonista. Nire historia pertsonalaren zati bat osatzen du eszena hark.

Handik 3 urtera bukatu zen gerra zibila eta Donostian *garaipenaren estropada* izenekoa jokatu zuten hainbat traineruk, eta oriotarrak izan ziren trapua etxera ekarri zutenak. Tela puska gogoangarria, historikoa: piper pote dotorea eta Francoren izena hirutan ageri dela.

Ditxosozko 39ko banderak zer esana eman du, kaskarin talde batek bandera hark baliorik ez duela erabaki duen honetan. Hogeita hamaika genituen eskutik, jokoa irabazten gindoazen eta zapuztu egin nahi izan gaituzte. Zati horian dagoen Franco – Franco – Franco hura Donostia bezalako hiri elegante batentzat aiposegia ez da izango, nonbait, eta Kontxako curriculumetik kitaborroiarekin borratzea okurritu zaie. Fundamentu gabeko arrazoiak erabili dituzte

horretarako, neurriak, datak... zenbaki hutsak estropaden arima bazterturik.

Aldrebeskeria honen atzean badago mamia. Donostiar batzuentzat zaila izango da beren hiriaren historia gurea bezalako herri koskorretan sortutako arraunlariek eta arraunzaleek egin dutela onartzea. Ametitu beharra baitute kapitaleko handiusteek: marko konpara ezina bai baita Donostia, baina irailean gatz eta piperra gure kontu izaten da, probintziano gajoenean. Beraiena da plaza, baina gurea bertan bizitzen den saltsa.

Jakin beharko lukete gure herria bezalakoetan arrauna jenerazio eta genero guztiak elkartzen dituen hori dela. Gurea. Maita ditugunek egina. Konturatu beharko lukete Donostiako estropadetako onena arraunzalea dela, eta maitatu eta errespetatu egin beharko luketela istorio guzti hau buka ez dadin.

Neurri ezberdinetan neurtuko da oraingoa, baina neurrigabea da egin dutena. Orduan arraun egin zutenengatik baita Kontxako estropada orain dena. Atzera begira egiten baita aurrera.

**azku**  
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com



**KARELA KIROLDEGIA**  
**IKASTAROAK 2016-17**  
 IRAILAREN 12TIK URRIAREN 02RA ABONATUZ GERO, MATRIKULA DOHAIN!

GURE SAIO BERRIAK: CORE EXPRESS ETA FUNKY-JAZZ.  
**Animatu zaitetz eta zatoz gurekin ondo pasatzera!!**

**KARELA** Erriberak 1, 20810 Orio · 943 894 428 · orio@bpxport.es

**ROSANA**  
 -ARGAZKI ESTUDIOA-

fotorosanaarruti@gmail.com  
 telf; 943 83 58 45




**gizarte**  
**kutxa**

**Katu**  
**MORIA**  
 albaitaritza klinika

**ESTROPALARI, 10**  
**20810 ORIO**  
 tel. 943 11 66 99

Larrialdiak  
**668 89 11 29**

www.katumoria.com



**Imanol Illarramendi**  
 Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com      665 70 33 47

**PIZZERIA**  
**KALETA**



**ARRANTZALE KALEA, 10**  
**TELEFONOA: 943 24 89 46**

**Carmen eta Txomin**  
**ARRANDEGIAK**



**943 83 05 37 / 943 83 27 47**

**KAXAIO**  
 PLADURRA ETA ESKAIOLA

Konponketa eta berrikuntza lanak  
 pladurra eta eskaiolarekin

4josemaria@gmail.com  
 656 777 574

**KOLON TXIKI**  
 elaritegia  
 jatetxea



Herriko Enparantza, 4  
 ORIO  
 Tel. 943 83 00 44

**BODEGAS**  
**Gailur**

01307 BAYNOS de EBRO  
 Tel/Fax 945 60 91 56  
 www.bodegasgailur.com  
 Arabar Enioka

**ZUDUGARAI**



Getariako Txakolina  
 Tel. 943 83 03 86  
 Fax 943 83 59 52  
 txakolizudugarai@euskalnet.net  
 www.txakolizudugarai.com

**HAIZE BERRI**  
 taberna-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak,  
 bokatak,  
 hanburgesak,  
 raziok,  
 eguneko menua...

ostiraletan  
 pintxo  
 potea!!

eta etxera eramateko  
 zerbitzua!  
**943 831 623**  
 Orioko kiroldegian, Erribera 1

**ITZIAR**  
 kirolak



Tel. 943 83 31 03

**Hilarriak eta marmolak**  
**Azpiroz S.L.**  
 San Esteban auzoa, 18 (Gilisagasti baserria) Usurbil


Orioko eta Aiako  
 hilerrietarako zerbitzua

- Hilarriak eta panteoiak
- Harrian inskripzioak
- Panteoietan mantentze eta garbiketa lanak
- Argazki zeramikoa

**627467216**  
 marmolesazpiroz@hotmail.com  
 http://marmolesazpiroz.wordpress.com







# “Gorputz hezkuntza ikasgai garrantzitsua da”

## Asier Landa

Gorputz Hezkuntzako irakaslea eta Realeko atezainen entrenatzailea.

Oraingoan Karkarak lan berria eskatu digu, elkarrizketa testu bat hain zuzen. Gu, Orioko LH6.mailakook, gara aurrenak. Proposamen ezberdinak izan ditugu gelan eta denen artean Asier Landa elkarrizketatzea erabaki dugu. Asier DBHko Gorputz Hezkuntzako irakaslea da eta Zaraguetara etorri berria da. Soinetaz aparte, Realeko gazteen entrenatzailea ere bada.

### Nongoazara?

Zarauztarra naiz.

### Zenbat urte dituzu?

43 urte ditut.

### Badakigu Realeko gazteak entrenatzen dituzula, noiz hasi zinen horretan?

Orain dela 12 urte.

### Zein da bereziki Realean egiten duzun lana?

Atezain gazteekin egiten dut lana.

### Gaur egun ba al dago goi mailetan zuk entrenatu duzun futbolarien bat?

Lehenengo taldean Ander Bardaji –lasartearra– eta Toño Ramirez –errioxarra–.

### Futbolaz gain, beste kirolik egiten al duzu?

Bat baino gehiago: txirrindularitza, korrika, judoa, urretako kirolak...

### Eta kirolaz aparte, ba al duzu beste zaletasunik?

Bai, argazkilaritza. Orain dela bi urte ikastaro bat egin nuen eta orduetik aurrera zaletua naiz.

### Soinetako irakaslea zara, zergatik aukeratu duzu Zaragueta eskola?

Gertutasuna eta eskola lasaia dela entzunda nuelako.

### Zaraguetatik zer da gehien gustatu zaizuna?

Eskola txikia dela eta oso lasaia.

### Eta gutxien?

Gorputz Hezkuntzarako toki murriztua. LH eta DBHkoek partekatatu behar izaten dugu frontoia eta askotan DBHkoek kiroldegira joan behar izaten dugu.

### Gustuko al duzu zure lana?

Bai eta nabarmendu nahi nuke Gorputz Hezkuntza ikasgai oso garrantzitsua dela, ez dut beste ikasgaiei garrantzia kendu nahi, baina Gorputz Hezkuntzak pertsona osotasunean hezten du.

### Txikitan zein zen zure ametsa?

Futboleko jokalaria profesionala izatea, eta, aparte, fisioterapeuta.

### Ikasle ona al zinen?

Akademikoki nota normalak ateratzen nituen, gehiago egin nezakeen. Jarrera aldetik oso-oso lasaia nintzen.



Irati Gonzalez

## Etxeko lanak bai edo ez

**G**aur egun, ikastola eta eskoletan ikasi eta lan ugari egitea ez dela nahikoa iruditzen zaie irakasleei. Horregatik, eskola bukatu eta gero, etxeko lanak bidaltzen dizkigute.

Ikasketetan etxeko lanak egitea inportantea dela esaten dute irakasleek, baina ikasleoi gehiegizko lana bidaltzen digutela iruditzen zaigu. Eskolan 6-8 ordu pasatzen ditugu; astero 30 ordu baino gehiago, eta gainera, etxera joan eta beste pare bat ordu lanak egiten, gehiegizkoa da! Etxera joan eta deskantsatzeko denbora gutxi gertatzen zaigu lanean jarraitu behar dugulako.

Lana egiten duten pertsonak, adibidez, bere lan-orduak egin, eta etxera joaterakoan ez dute laneko kontuez kezkatu beharrik. Hau da, deskantsatzeko eta lanetik deskonektatzeko denbora dute.

Zergatik bidaltzen dizkigute etxeko lanak? Niri injustua iruditzen zait, guk ere deskantsatzeko eta deskonektatzeko denbora gehiago nahi dugu, eskola-ikastoletan denbora asko pasatzen dugulako, gero etxera joatean, berriz lanekin jarraitu behar izateko.

**Guk ere deskantsatzeko eta deskonektatzeko denbora gehiago nahi dugu**

# Harri eta zur, zur eta lur



Manuel Fernandes eta Migel Etxeberriaren erakusketa Orion . KARKARA

## Kritika Harri eta zur

**Erakusketa,** Orioko kultur etxean Manuel Fernandes eta Migel Etxeberriaren eskulanak egon dira ikusgai.

**E**ti jakin-min egarriz nagoenez, kuriosiotate ase-zina dudalako, ezagutu nuen Manuel Fernandes. Getariako alde zaharrear zuen denda-tailerrera sartu nintzenean ezagutu nuen, berak egindako egurrezko eta harrizko lanak ikustera joan nintzenean.

Arreta eman zidan Fernandes lanak, ezohiko eskultorea zelako. Eta ez bakarrik bere obregatik, baizik eta erabiltzen zuen materialagatik. Deribako egurra erabiltzen du, baita errekarriare.

Orion izan berri den erakusketa Miguel Etxeberria eskultore beteranoarekin batera antolatu du. Beasaindarrak *este-reotomia* izeneko segida paregabea erakutsi du erakusketan.

Oso zaila da errekarriaren gainean lan egitea. Oso teknika zaila da. Gutxi dira teknika hori erabiltzera ausartzen direnak, gogorra baita oso eta heltzeko zaila baita. Baina Manuelentzat zailtasunak irtenbideak dira, eta itsasoak biribildutako eta leundutako errekarrietatik eta egurretatik sortzen dira bere lanak. Naturan oinarritzen dira eta bere ogibide diren harri-pikatzaile eta katedraletako zaharbertzaile lanekin lotura zuzena dute.

**ANTXON MENDIZABAL, MENDI**

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**

**OGI | BERRI**

943 578 176  
Herriko enparantzan

**Izozki naturalak - Opilak**

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

**ZAUDEN  
LEKUAN  
ZAUDELA**

**karkara.eus**

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

**Tfnoa: 943 83 59 00**



Argazkiko arraunlariren bat irabazle izan da Kontxako 36 ediziotan. Denak daude 1939koaren alde.

# Historia manipulatzeko

**Oroimenaren  
kutxa**

**E**uskaldun guztiok dakigu Gernika naziek bonbardatu zutela 1937an. Baina Espainiako gerra irabazi zutenek bestelako mezua zabaldu zuten. Mola eta Franco jeneral faxistek-eta, Gernika bonbardatu ondoren, munduari esan zioten gorriek eta bertako biztanleek su eman ziotela.

Interes politiko ezkutuen pean historia manipulatzeko joera aspaldikoa da gizakion artean. Sasi-historialari batzuek ezkutatu egin nahi izaten dute gertatutakoa, beste batzuek aldatu.

Gerra ondorengo erregimen errepresibo itogarrian, gerran egindako astakeriak ezkututzen saiatu ziren. Horixe egin zuten Orioko Teodoro Mitxelenarekin, tiroz hil eta ezkutuan lurperatu ondoren, inork ez omen zekien haren berri, ez hiletariek heriotza-agiririk eta ez oroimenekitaldirik ezin izan zen egin gizon harenik. Antzera jokatu zuten Aiako alkate Gabino Alustizarekin ere. Hildako haien senideek egia erakusteko egindako ahaleginari esker jakin dugu gainerako herritarrok gizon haien berri.

1936ko gerrarekin lotutako beste gertaera batean ere errebisionismo xelebrea egiteko ahaleginetan dabilta batzuk Donostia aldean. Francok gerra amaitutzat eman eta 9 egunera, 1939ko apirilaren 10ean, jokatu zen urte hartan Donostiako estropada. Orain baliorik gabe utzi nahi dute estropada hura: historiatik eta palmaresetik kendu. Nahiz eta kasu hau beste maila bateko errebisionismo saiakera izan, honek ere mina sortu du herri batean, edizio hartan bandera irabazi zuten gizonen herrian, Orion.

Gaur egun edozein edozertan ausartzen da. Orion oraindik inork ez daki seguru zergatik erabaki duen, hori erabaki duenak. Ezta zehazki inork erabaki duen ere. Kontu bitxia eta xelebrea da! Nor da dena delako hori palmaresa aldatu nahi izateko?

Orain arteko antolatzaile, agintari, klub, arraunlari eta kazetariek ia lau urtez ontzat emandakoa, berak bertan behera utzi nahi izateko? Bada xelebrekeria franko bazterretan!

1939ko estropadaren ezaugarri batzuk ohi ez bezalakoak izan omen ziren: data, luzera... Donostiako aurreneko estropada jokatu zenetik, haren ezaugarri guztiak aldatzen joan dira: irailtik kanpo hainbat estropada jokatu dira Donostian, eta oraingo 3 miliatik beherakoak ere bai, ez 1939ko bakarrik. Beraz, hura balio gabetzea ezin da horregatik izan noski.

Memoria historikoaren izenean baldin bada, berriz, astakeria are handiagoa da. Monarkia, errepublika, diktadura, demokrazia..., era guztietako erregimen politikotan jokatu da Donostiako estropada. Banderak era askotakoak izan dira haren historian: espainola, Errepublikaren kolore gorri-hori-morekoak, zuriak... Garaian garaiko zirkunstantzia politikoek beren kutsua eman diote estropadari.

Kontuz gero 1939koa aldatzeko ahaleginetan dabilenarekin! Uzten baldin bazaio, beharbada Donostiako Zinemaldiaren aurtengo edizioa ere baliorik gabe utzi eta palmaresetik kenduko du, memoria historikoaren izenean, eta datorren urtean aurten bezala 64. edizioa egin beharko da. Izan ere, 1953ko aurreneko edizioan, orain ez bezala, zinemaldia Donostiako merkatariek antolatu zuten –ez Donostiako Zinemaldia elkarteak–, Espainiako filmak bakarrik saritu ziren –nazioartekoa?–, sari banaketa Victoria Eugeniean ospatu zen –ez Kursaal–, 7 egun besterik ez zuen iraun –ez 9– eta bandera espainola ageri zen nonahi.

Hobe gauza hauek umore pixka batekin hartzea, bihotz errearekin ibiltzea baino, dagokionak hartuko du-eta gauzak bere onera ekartzeko erabakia.

**IÑAKI IURAIN**





## Politika

# Hauteskundeetan Orion eta Aian EAJ garaile

Legebiltzarreko Hauteskundeak izan ziren irailaren 25ean. Alderdi bakoitzak zerrenda aurkezten du eta PSE-EEren zerrendan Ana Priedek 21. toki hartu du. Dena den, ez da legebiltzarrean izango, PSE-EEK ez baititu horrenbeste eserleku eskuratu.

Orion eta Aian hauteskundeetan EAJ izan da garaile. Aian 479 boto eskuratu ditu EAJk eta Orion 1197. Bi herrietan EH Bildu izan da bigarren indarra; Orion 917 boto jaso ditu eta Aian 362. Bi herrietan boto kopuruak behera egin du 2012. urteko hauteskundeekin alderatuta.

## Kirola

### Komisioa sortu da 1939. urteko banderaren auzia aztertzeko

Kontxako bigarren igandearen bezperan agerraldia egin zen 1939. urtean arraunlari oriotarrek uretan irabazi zutena defendatzeko. Agerraldiaren ondoren, Eneko Goia Donostiako alkateak bilera egiteko borondatea erakutsi zuen eta komisioak ez du aukera hori galdu nahi. Bilera eguna eta ordua jarri zain daude komisioko kideak. Baina, bilera baino lehen, komisiolan gaia aztertzeko, ikertzeko eta lantzeko asmoa daukate.

## Kultura

### Orio historian zehar azterlana eskura dago berriro kultur etxean

Marta Trutxuelo historialari andoaindarrak idatzi eta Orioko Udalak 2003an argitara emandako *Orio historian zehar* lanaren ale guztiak agortuta zeuden eta Udalak erabaki du lanaren ale batzuk argitaratu eta herritarren eskura jartzea berriro. Eskuratu nahi duenak kultur etxera joan behar du eta han eskatu. 31 euroren truke jaso ahal izango du.

## Gizartea

### Hamaika lanpostu eskualdeko herritarrentzat

Urola Kostako Udal Elkarteak 11 pertsona kontratatuko ditu aldi baterako enplegua sustatzeko 2016ko planaren bidez. Kontratuak 6 hilabetekoak eta lanaldi osokoak izango dira eta azaroan edo abenduan hasiko dira. Oinarriak eta eskabidea egiteko ereduak Udal Elkartearen webgunean aurki ditzakezu.

## OSPAKIZUNA



# Mexikora doa Orion 13 urtez taxista lanak egin eta gero

Aitor Cospedalek Orio utzi du eta Mexikora joan da. Pasa den astean lagun artean agur-afaria izan zuen. Aitorrek eskerrak eman nahi dizkio Orioko herriari, 13 urte igaro baititu hemen eta urte horiek guztietan harreman ona izan duelako oriotarrekin. Joan baino lehen, jasotako tratua eskertu nahi izan du.



## Gizartea

### Izena jarri behar zaio Orioko Gure Esku Dagoko elkarteari

Gure Esku Dagok elkarte bat sortu behar du hurrengo udaberrian herri galdeketa egin ahal izateko. Elkarte horren izena erabakitzeko garaia da orain eta oriotarren laguntza behar dute horretarako. Gure Esku Dagoren proposamenak hauek dira: *Baliatu, Baliza, Hitzori eta Hori hori!!!* KARKARA.EUS atarian inkestak bat jarri dugu martxan, izen aproposenari botoa emateko. Beste izenen bat bururatzen bazaizu, bidali emailaz [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) helbidera eta zerrendan gehituko dugu. Zuen parte hartzea eskertzen du GED taldeak.



## Gizartea

### 3 urterako hitzarmena Udalak eta AEK-ren artean

Orioko alkate Jose Angel Zaldua Iparragirre eta AEK-ko Koordinatzaile Nagusi Mertxe Mugika Balanzategik hiru urterako hitzarmena sinatu zuten irailaren 15ean, goizean. Akordio horrek bermatuko du, datozen hiru urteetan, Aek-k Orion euskara irakasteko eskumena izatea eta ikasleek ikasteko erraztasun ekonomikoak izatea.

AEKren udal euskaltegiak bi urte bete ditu eta harrera oso onak izaten ari da herrian. Eskaera handi bati erantzunez egin zen euskaltegia eta bide horretan aurrerapausoak eman nahi dira.

#### Gizartea

**Antxiola kaleko irisgarritasuna**  
2016ko abuztuaren hasieran bukatu ziren Antxiola kaleko irisgarritasuna bermatzeko lanen I. faseko lanak. Obra horien bitartez, Antxiola kaleko etxe atari guztien irisgarritasuna eta segurtasuna hobetu da.

#### Kirola

**Boulderra praktikatzeko aukera**  
Irailetik aurrera, hilabetero, hirugarren igandeetan, nahi duenak boulderra praktikatzeko aukera izango du Talai Mendiren lokalean. 16:00etatik 19:00etara egongo da boulderra zabalik.

#### Kirola

**Oliden DV torneoan izango da**  
16 urte bete ditu Aratz Olideneak. Adin horrekin, pilotari seniorrek eta etorkizunekoek osatutako txapelketan hartuko dute parte. Txapelketa entzutetsua da, afizionatu mailan ezagunenetakoa. Guztira 64 pelotarik hartuko dute parte.

#### Gizartea

**Abian da Mintzalagun programa**  
Euskaraz dakiten pertsonak euskara ikasten ari direnekin elkartzen ditu astean behin Mintzalagun programak. Euskaraz ikasi edo ikasten lagundu nahi baduzu eman izena AEK euskaltegian.

#### Politika

**Hauteskundeetako porra**  
Legebiltzarreko hauteskundeak zirela eta hauteskunde-porra jarri genuen martxan Karkara.eus atarian. Webgunean txertatu duten aplikazio berri bat da eta estreinakoz hauteskundeetan erabili genuen. Ez zuen asmatzailerik izan.

#### Kirola

**Astebetean 330 kilometro**  
Jose Inazio Manterola oriotarrak Italiako Endurance Trail lasterketan hartu du parte. Proba urriaren 11n hasi zen eta hilaren 18an bukatu zen. 133. postuan bukatu zuen lasterketa Manterolak.

**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Erosgai**

■ Trastero edo bodega bat erosi nahi dut Orio erdi-gunean. Telefonoa: 663028365 -Lore-.

**Elkarbanatzeko**

■ Lanerako bulego handia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin. Interesatuak deitu: 656309237 -Imanol-.  
 ■ Pisukide arduratsu bila 2 logela eta 2 komuneko etxea elkarbanatzeko. 15 metroko gela ohe bikoi-

tzarekin. 50 metroko ter-  
 rraza. Tf: 652551550

**Salgai**

■ Arrautza ekologikoak salgai: 5€ dozena arrautz. Tf: 656772428

**Alokairuan**

■ Pisua alokatzen da Aian. Telefonoa 660884319 -Ana Beldar-  
 ■ Bi logelako pisua aloka-  
 tu nahi dut urte osorako. Tf: 607789644 -Izaskun-.  
 ■ Pisua alokatu nahi dut udarako, uztaila edo abuztua. Tf: 636684891

-Juan Carlos-.

**Lan eskaintza**

■ Aiako jatetxe baterako zerbitzari euskaldun bila, barra nahiz jangelarako. Asteburu eta ospakizun-  
 etarako. Interesatuak deitu: 943834322  
 ■ Ingelesarekin lagundu-  
 ko nauen pertsona baten bila nabil. Goizetan, 8:30tatik 11:00etara. Te-  
 lefonoa: 669781963  
 ■ Salatxo tabernan zerbi-  
 tzari bila gabiltza egune-  
 ro lan egiteko, esperien-  
 tziaduna eta euskalduna. Tf.: 608774954

**ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	05:20 eta 17:35	11:14 eta 23:39	☾
02	05:55 eta 18:09	11:50 eta ____	☾
03	06:27 eta 18:42	00:13 eta 12:24	☾
04	06:59 eta 19:14	00:46 eta 12:559	☾
05	07:30 eta 19:46	01:20 eta 13:33	☾
06	08:03 eta 20:20	01:54 eta 14:09	☾
07	08:39 eta 20:58	02:30 eta 14:49	☾
08	09:20 eta 21:44	03:10 eta 15:34	☾
09	10:13 eta 22:46	03:59 eta 16:32	☾
10	11:24 eta ____	05:02 eta 17:45	☾
11	00:09 eta 12:48	06:19 eta 19:03	☾
12	01:31 eta 14:00	07:32 eta 20:10	☾
13	02:33 eta 14:54	08:31 eta 21:02	☾
14	03:22 eta 15:40	09:20 eta 21:47	☾
15	04:05 eta 16:22	10:03 eta 22:29	☾
16	04:45 eta 17:02	10:45 eta 23:10	☾
17	05:25 eta 17:43	11:26 eta 23:51	☾
18	06:05 eta 18:24	12:08 eta ____	☾
19	06:46 eta 19:08	00:33 eta 12:51	☾
20	07:30 eta 19:54	01:16 eta 13:37	☾
21	08:17 eta 20:44	02:03 eta 14:26	☾
22	09:10 eta 21:43	02:53 eta 15:22	☾
23	10:14 eta 22:57	03:52 eta 16:29	☾
24	11:34 eta ____	05:02 eta 17:50	☾
25	00:26 eta 13:01	06:25 eta 19:15	☾
26	01:49 eta 14:16	07:45 eta 20:27	☾
27	02:54 eta 15:13	08:48 eta 21:21	☾
28	03:43 eta 15:59	09:37 eta 22:04	☾
29	04:23 eta 16:37	10:17 eta 22:40	☾
30	04:58 eta 17:12	10:53 eta 23:13	☾

**Orio**

**Antzerkia**

■ Urriaren 6an, Jendar-tean bidaide an-  
 tzez-lana, Kultur Etxean, 22:00etan.

**Mandalara jardunaldiak**

■ Urriaren 28an: Mandalaren 10 urte-  
 en errepasoa 18:00etan. *Bizimodu guz-  
 tiak besarkatzea* konferentzia Fidel Del-  
 gadoren eskutik, 19:30ean.  
 ■ Urriaren 29an: Yoga familian Jesica  
 Moralesen eskutik, 10:30ean. *Brain Gym*  
 eta TMR Maialen Mujikarekin. *Dolua,*  
*autoezagutzarako bidea* hitzaldia Bidegi-  
 neko Izaskun Andonegirekin,  
 17:00etan. Tarota Isabel Lopezen esku-  
 tik, 19:30ean.

■ Urriaren 30an: Eneagrama eta osasu-  
 na Aimar Martinezen eskutik, 10:30ean.  
 Fibromialgia eta Medikuntza Integra-  
 tzailea Jabier Azpiri eta Karmelo Bizka-  
 rraren eskutik, 12:00etan. Biodantza fa-  
 milian Elen Kortaxarenarekin,  
 17:00etan. Barreterapia flamenkoa Mo-  
 nica Nuñezeren eskutik, 19:00etan.  
 ■ Jardunaldiko ekintza guztiak Manda-  
 lararen lokalean egingo dira -Antxiola  
 kalea, 15-. Informazio gehiago 648 487  
 489 telefonoan.

Atzeko azaleko argazkia  
 1970-1975 urte ingurukoa  
 da. Manuk bere iritzian  
 aipatzen duen barraka  
 da argazkikoa.

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

IRAILA

- 1ean eta 2an, Lasa
- 3an eta 4an, Zulaika
- 5ean, Lasa
- 6an, Mutiozabal
- 7an, Lasa
- 8an, Etxeberria
- 9an, Lasa
- 10ean eta 11n, Izpizua
- 12an, Mutiozabal
- 13an eta 14an, Lasa
- 15ean, Izpizua
- 16an, Zulaika
- 17an eta 18an, Iriarte
- 19an, Etxeberria
- 20an, Lasa
- 21ean, Mutiozabal
- 22an, Zulaika
- 23an, Iriarte
- 24 eta 25, Larrañaga
- 26an, G. Artiñano
- 27an, Izpizua
- 28an, Zulaika
- 29an, Iriarte
- 30ean, Lasa

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8,  
 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17,  
 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12,  
 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16,  
 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza,  
 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigor-dia kalea, 17,  
 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo  
 Enea, 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41  
 943 13 39 94 Zarautz



**Galerna**  
 JATETXEA

Antillako Hondartza 5  
 20810-Orio-Tel.: 943 89 04 16

**ELEKTROESTIMULAZIOA** **KARELA**  
 kiroldegia

JAR ZAITEZ SASOIAN  
**ASTEAN 20**  
**MINUTU ARITUZ**



Informa zaitez eta eskatu zure lehenengo saioa 943 89 44 28  
 kirol.zerbitzuak **BPXport** www.bpxport.es



**PARTE HARTZEA**

IRA 1 - URR 14

**PRESTATZEA**

URR 15

**ONARTZEA**

AZA

**KONTU EMATEA**

ABE

**Aurrekontu Irekiak 2017.**

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaitez proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

**Orain Gipuzkoa. Orain zu.**



[www.gipuzkoa.eus/partaidetza](http://www.gipuzkoa.eus/partaidetza)

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE

943 112 111 • [partaidetza@gipuzkoa.eus](mailto:partaidetza@gipuzkoa.eus)

[@OrainGipuzkoa](https://twitter.com/OrainGipuzkoa) #partaidetza [f](https://www.facebook.com/OrainGipuzkoa) OrainGipuzkoa

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

